


2021eko adikzioen
diagnostikoa eta

2022 – 2026eko
Adikzioen II.
Planaren kokapena



AURKIBIDEA

	Orria
1.Sarrera	3
2. Esparru teorikoa	4
3. Udalerrriaren azterketa soziodemografikoa	9
4. Adikzioen egoera Elgoibarren	13
4.1 Gazteen kontsumoak eta portaerak	15
4.1.1 Alkohola probatzea eta kontsumitzea	15
4.1.2 Tabakoa probatzea eta kontsumitzea	24
4.1.3 Kalamua probatzea eta kontsumitzea	30
4.1.4 Beste droga batzuk probatzea eta kontsumitzea	36
4.1.5 Teknologien erabilera	38
4.1.6 Apustuak	41
4.1.7 IKT-en gehiegizko erabilera	42
4.1.8 Internetekiko mendekotasun arriskua	46
4.1.9 Internet bidezko jazarpena vs bullying-a	47
4.2 Biztanleria helduaren kontsumoak	49
4.2.1 Alkoholaren kontsumoa	49
4.2.2 Tabakoaren kontsumoa	51
4.2.3 Kalamu kontsumoa	53
4.2.4 Beste droga batzuen kontsumoa	57
4.2.5 Substantziarik gabeko adikzioak	60
5. Komunitateak adikzioei buruz duen pertzepzioa	64
5.1 Pertsona esanguratsuen eztabaida-taldeak	64
5.2 Herritarren parte-hartzea webgunearen bidez	73
6. Ondorioak	86

1.SARRERA

Substantzia legalen zein legez kanpokoan kontsumoa eta baita substantziarik gabeko adikzioen erabilera eta abusua ere, aspalditik daude gure ingurunean; eta joera hori geratzeko etorri da, goranzko edo beheranzko gorabeherekin, erabilera hauen, portaera eta ohiturak etengabe eboluzionatuz prozesu dinamiko batean.

Zain barneko heroina erabiltzeak laurogeita hamarreko hamarkadan sortutako arazoei aurre egiteko, diseinuko drogak kontsumitu ziren: hala nola estasia, speeda edo deribatu anfetaminiko ugari (kokaina eta deribatu kannabinoideak).

Gaur egun, kezkarik handienetako bat portaeren ingurukoa da, batez ere gazteek teknologiekin egiten duten erabilerarengatik. Gailu mugikorren erabilera neurrigabea, tresna honek dituen erabilera ugariak kontuan hartuz, adibidez, argazkiak edo selfiak (norbere-argazkiak), sare sozialak, Internetarako sarbide azkarra eta mugagabea, ezagutzak eskuratzeko dituen onurekin eta webgune arriskutsuetara sartzean dituen arriskuekin, komunikazio birtualeko modu berria, munduaren beste aldean dauden pertsonekin jokatu edo askotan kaltegarriak izan daitezkeen adiskidetasunekin konektatzeko, online-jokoa erabiltzeko...honek guztiak adikzio mota honi arreta ipintzeko premia azaleratzen du.

Eta hori guztia gure artean luzez egon diren adikzioak ahaztu gabe. Biztanleriak neurriz kanpo kontsumitzen baitu alkohola, gure ingurunean gizarte-harremanak egituratzen dituen substantzia nagusia izanda, eta baita erretzen diren substantziak ere (kalamua eta tabakoa, esaterako) gure erkidegoko kontsumoaren top zerrendan jarraitzen dute. Hori dela eta, kontsumo eta portaera horiek prebenitzeko egin daitekeen guztia gutxi da gizarte osasuntsuagoa, osasungarriagoa eta norberaren osasunaz eta ongizateaz arduratzen dena lortzeko.

Premisa horietatik sortu zen Elgoibarko Adikzioen II. Plana. Azken urteotan garatutako esperientzia eta komunitatearen lankidetzaren funtsezkoak izan dira adikzioen prebentzioan, herritarren sektore guztien esku-hartzea beharrezkoa baita, alkatetzatik eta alderdi politikoetatik hasita, gizarte, kultura, kirol, jolas zein aisialdi elkarteetara, ikastetxeetara, familietara, osasunera eta tokiko poliziara zein autonomia erkidegokora iritsi arte.

Azken finean, guztion artean edo guztiontzat, pertsona gazte, heldu, arazo sozio-ekonomikoak dituzten pertsona zein adikzio arriskua duten pertsonekin konpromiso handiagoa duen gizarte lortu ahal izango dugu... Bidezko gizarte osasuntsu eta orekatu bat lortzeko, non pertsona guztiak garrantzizkoak garen.


2. ESPARRU TEORIKOA

Adikzioak ez dira eragile edota faktore bakar batengatik sortzen; aldiz, kausa anitzeko jatorria dute, eta, horregatik, hainbat esparru teoriko garatu dira hori ulertu ahal izateko. Horien artean, honako hauek azpimarra ditzakegu:

2.1 Eredu ekologikoa (Bronfenbrenner, 1981)

Eredu horrek adierazten du, pertsonen garapena, haien eta presona euren ingurunearen arteko egokitzapen progresiboaren emaitza dela; hala nola: eskola, familia eta berdinen taldea, hain gertukoak ez diren beste ingurune batzuk ahaztu gabe, adibidez komunitatea, auzoa, komunikabideak, etab. Harreman hori bi noranzkoa da, eta horrek esan nahi du pertsona inplikaturik dagoela giroan, eta, beraz, horretan ere eragina duela.

Pertsonaren eta ingurunearen arteko bi noranzkoko dinamika horretan, nerabeak eta gazteak, euren bizi-zikloan zehar, arrisku-egoera ugariren eraginpean egongo dira, eta, logikoa den bezala, baita babes-egoera ugariren eraginpean ere.



Eredu ekologikoaren arabera, jokabide arriskutsuen jatorria eta horien ondorioen larritasuna ulertzeko eta prebenitzeko, beharrezkoa da ikuspegi interaktibo bat hartzea, pertsonaren ezaugarriak zein pertsonak ingurunearekin ezartzen duen interakzioa kontuan hartuta; eta horiek hainbat mailatan deskribaturik edo azalduta.

Horrela, elkarri lotuta dauden hiru elementu nagusi hartu behar dira kontuan: adikzioaren jokabideak (substantzia edo portaera), subjektua (faktore psikikoak eta psikosozialak) eta ingurunea (adikzioaren gizarte-balorazioa, gizarte-egoera orokorrak).

2.2 Eredu soziala (Stanton Peele, 1985)

Eredu soziala adikzioek gure bizimoduan duten rolean oinarritzen da, adikzioa pertsonak euren esperientzia interpretatzeko eta azaltzeko duten moduagatik gertatzen baita. Munduari aurre egiteko moduak, iraganeko esperientziek zehaztuta, norbere burua ikusteko moduak, nortasunak eta gizarte-inguruneak, funtsezko eragina dute drogen kontsumo-esperientzian eta horiei aurre egiteko moduan.

Drogak edota mendekotasuna sortzen duten jokabideak (teknologia berrien erabilera, adibidez) bidelagun bihurtzen dira pertsona batzuen kasuan euren bizitzan ager daitezkeen estres, antsietate, sufrimendu, ezegonkortasun eta bestelako egoerei hobeto aurre egiteko.

Mendekotasunak pertsonaren beharrei erantzuna emateko balioko luke, pertsona hori bere buruarekin pozik egoteko gai ez delako. Teknologia berriak kontsumitzeak edo gehiegi erabiltzeak aukera emango du ingurukoetatik, asegabetasunetik eta frustraziotik deskonektatzeko, une batez bada ere.

Eredu horren arabera, gure kulturak adikzioak bultzatzen ditu, arrakasta lortzea eta berehalako gogobetetzea balio nagusiak baitira. Helburua hauek lortzea zaila denez, eta gure egungo errealitate sozioekonomikoaren konplexutasunari aurre egitea gero eta zailagoa denez (batez ere gazteen kasuan), mendekotasunen hazkundeak, ihes egiteko funtzio horrekin, gora egingo du ziurrenik.


Autore honek arreta berezia eskaintzen dio alkoholari, droga honek inhibizioak eta antsietateak alde batera uztea eta balio-sentsazioa areagotzea ahalbidetzen baitu. Gaur egungo gizarte konplexu eta zail honetan, gazteen artean alkoholaren kontsumoa handitu egingo dela aurreikusten da, legeztatuta egoteaz gain, arriskuen pertzepzio txikiagatik eta edari alkoholikoen eskuragarritasunagatik.

Alkoholaren edo beste droga mota batzuen kontsumoa edo IKTen erabilera (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) adikzio-arazo bihur ez dadin pertsona batek autokontrola garatu izana funtsezko babes faktorea da. Horretarako, substantzien eta IKTen neurrizko erabilera edota erabilera kaltegarria bereizten ikasi behar da, eta bizitzan kontsumoak edota mendekotasun-jokabideak ez diren asebetetzeko erak garatu behar dira.

2.3 Eredu biopsikosoziala (George L. Engel, 1977)

Osasunaren eta gaixotasunaren ikuspegi parte-hartzailean oinarritzen da; eredu honen arabera, faktore biologikoak (faktore kimiko-biologikoak), psikologikoak (pentsamenduak, emozioak eta jokabideak) eta faktore sozialek giza jardueran, gaixotasun edo desgaitasun baten testuinguruan eta adikzio-prozesuetan eragin esanguratsua betetzen dutela defendatzen du.

Prebentzio arloan, eredu biopsikosozial horren ekarpen nagusietako bat, **"Arrisku-faktore"** kontzeptua da. Arrisku-faktorea prebentzioaren arloko definiziorik argigarrienetako bat izan da, ez soilik bere esanahiagatik, baita adikzioaren garapenarekin lotura handia duten elementu, egoera edo gertaerak mugatzeko orduan duen eraginkortasunagatik ere.



Ikuspegi horretatik, arrisku-faktoretzat hartzen da pertsona batek mendekotasun bat hasteko eta mantentzeko aukerak handitzen dituen inguru zein pertsonaren ezaugarrien multzoa.

Une jakin batean, batera agertzean, pertsona batek mendekotasun batekiko duen kalteberatasuna areagotu dezaketen aukera-baldintzak dira. Ez dago kausalitate zuzenik arrisku-faktoreen eta adikzio-faktoreen artean, baina jakina da arrisku-faktoreen uztarketak, subjektuen kalteberatasuna handitu dezakeela eta mendekotasuna garatzeko aukerak handitu ditzakeela.

Babes-faktoreak ezaugarri biologiko, psikologiko zein sozialak dira, horien presentziak pertsonaren garapena errazten du, indarguneen adieraztea ahalbideratzen du eta arrisku-faktoreek pertsonarengan eta familian duten eragina blokeatzen du.

Arrisku kolektiboetan egin berri diren epe luzeko ikerketek (Scales eta Leffert, 1999); (Tolan, et al., 2000) adierazten dute arriskuan dauden gazteen herenak arrisku-baldintza horiek betetzen dituela, baina gainerako bi herenek ez. Lehen aipatutako autoreen arabera, honen arrazoiak, babes-faktoreek eta erresilientzia-ezaugarriek arrisku-faktoreek baino ahalmen prediktibo handiagoa dutela da; beraz, adin-talde horiekin prebentzio esku-hartzeak planifikatzeko orduan faktore hauek oinarri izan beharko lukete.

Eva Peñafielek (2009) nerabeen substantzien kontsumoaren arrisku- eta babes-faktoreei buruzko ikerketan adierazten duenaren arabera, arrisku-faktoreak aztertzeak garrantzi handiko datuak ematen ditu gerora prebentzio-estrategiak diseinatzeko, hartzaileen ezaugarrien arabera garrantzitsuak diren aldagai jakin batzuk bereziki lantzeko aukera ematen baitute. Horrela, prebentzio-programa unibertsalak ezar litezke, herritar guztiei zuzenduak, eta baita prebentzio selektibokoak ere, horietan oso ondo definituko lirateke hartzaileen arrisku zein babes-profilak.

2.4 Eredu komunitarioa (Emory Cowen 1980. Felner, Jason, Moritsugu eta Faber, 1983)

Cowenen ideiak funtsezkoak izan ziren prebentzio komunitarioko estrategiak diseinatzeko; izan ere, prebentzio-ikuspegia sartu zuen psikologian, eta aitzindarietako bat izan zen osasun mentalean ongizatea eta baliabide positiboak sustatzen.

Adikzioak eredu komunitarioaren arabera prebenitzeak, testuinguru mikrosozialek (familiak, berdinen-taldeak, auzoak, etab.) adikzioen jatorrian edota bilakaeran duten eragina onartzea suposatzen du; eta baita antolatutako komunitateak konponbideak bilatzen inplikatzeko beharra onartzea ere, komunitateari forma ematen dioten espazio gizarteratzaileekin aldi berean jardutearen garrantzia dela eta. Hona hemen esparru horren ezaugarriak:

- ✓ Komunitatea, lurralde sinboliko, eragile eta esku-hartzearen hartzaile gisa.
- ✓ Udalerria, bultzatu beharreko proposamenen eszenario gisa.
- ✓ Antolatutako komunitatearen dinamizazioa, gaian inplikazioa duten gizarte-erakundeen arteko sareak bultzatuz.
- ✓ Gizarte-bitartekarien funtsezko zeregina, pertsona horietan oinarritzen baitira prebentzioaren funtsezko pausuak.
- ✓ Gizarte-eragile desberdinen prestakuntza, euren jarduera garatzen duten espazioetara egokitutako prebentzio-estrategietan.

Azpirarratzekoa da komunitate guztien baliabiderik garrantzitsuena **pertsonak** direla, hau da lurraldean bizi den biztanleriaren gaitasunen multzoa. Ikuspegi komunitario batetik, gaitasun horiek erabiltzen dira euren beharrian eta eskaera sozialei aurre egiteko: gizarte-eragile, erakunde eta instituzio desberdinek, leku jakin batean adikzioekin lotutako arazoei erantzuteko duten erantzukizuna ahalduntzea eta sustatzea.

Kontsumoa edo eskaria murriztera bideratutako prebentzio esku-hartzeak kontuan hartuta, eta esku-hartze horren xede diren pertsona taldeen arabera, **PREBENTZIO MAILA** desberdinetan oinarritutako **EGITURA** jarraitzen dugu, maila bakoitzak eskatzen dituen beharren arabera:

- **Prebentzio unibertsala:** biztanleria orokorrarentzako programak biltzen ditu, banakako arrisku-egoerak kontuan hartu gabe. Drogen kontsumoa eta abusua eragozteko eta atzeratzeko diseinatzen dira.
- **Prebentzio selektiboa:** arrisku-faktoretzat jotako edozein aldagai biologiko, psikologiko, sozial edo ingurune-aldagaiaren arabera drogak kontsumitzeko edota gehiegi kontsumitzeko arrisku berezia duten kolektibo espezifikoak zuzendua.
- **Prebentzio adierazia:** kontsumoarekin lotutako arazoak dituen populazioaren azpitalde jakin bati zuzendua, arrisku handikoa den biztanleriari zuzendua. Esku-hartzeak toxikoen erabilera jorratzeaz gain, ondorioz datozen arazoak murriztera ere bideratu behar dira esku-hartze hauek.
- **Prebentzio zehatza:** droga baten adikzioa duten pertsonak zuzendua, substantziak etengabe erabiltzeak dakartzan arrisku sozial eta sanitarioak prebenitzeko.

Azken batean, eredu komunitarioak honako jarraibide hauek ezartzen ditu:

- Ez dago prebentzioaz arduratzeko erantzukizun eksklusiboa izan dezakeen profesionalik.
- Adikzioak bizimoduarekin lotuta daude, eta, beraz, beharrezkoa da haien garapenean eragina duten gizarte-eragile guztiekin esku hartzea: gurasoekin, hezitzaileekin, elkarrekin eta abarrekin.
- Drogen gehiegizko kontsumoa eta jokabide-adikzioak ez dira administrazioek bakarrik konpon ditzaketen gatazkak. Gizarteak berak egin behar du lanaketa bere zailtasunei aurre egiteko.
- Bizitza publikoa kudeatzen duten administrazioek, adikzioen gatazka euren gain hartu behar dute, berezkoak dituzten erantzukizunak aurrera eramateko konpromisoa funtsean pedagogikoa eta laguntzazkoa izanik.


3 AZTERKETA SOZIODEMOGRAFIKOA

3.1 KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Elgoibar Gipuzkoako udalerria da, Debabarrena Eskualdekoa. Eskualdea, sei udalerrik osatzen dute: Deba, Eibar, Mendaro, Mutriku, Soraluze eta Elgoibar. Deba ibaiaren haranean dago, eta iparraldean Mendarorekin egiten du muga, hegoaldean Bergara eta Soraluzerekin, ekialdean Azkoitiarekin eta mendebaldean Eibar eta Etxebarriarekin. 39,11 Km²-ko azalera du eta 51 metroko altitua. Hirigunearen inguruan zazpi landa-auzo daude: Alzola, Arriaga, Sallobente-Ermuaran, Idotorbe, Aiastia, Azkue eta Urruzuno.

3.2 BIZTANLERIA


Elgoibarko biztanleria 11.570 biztanlekoa zen 2020an. Sexuaren arabera, % 50,7 emakumeak dira eta % 49,3 gizonak. Adin-tarteen arabera, 20-64 urteko biztanleria da ugariena (% 57), ondoren, 65 urte edo gehiagoko adin-taldekoak (% 23) eta, azkenik, 0-19 adin tartekoak dira gutxiengoak (biztanleriaren % 20). Biztanle-kopuruaren bilakaera nahiko egonkorra izan da 2005etik.



Adin taldeen arabeko banaketa ondorengoa da:


Elgoibar 2020									
Adin tartekak	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
0 - 4	239	259	498	1.179	1.169	2.348	% 21	% 20	20%
5 - 9	343	313	656						
10 - 14	334	334	668						
15 - 19	263	263	526						
20 - 24	259	224	483	3.391	3.201	6.592	% 59	% 55	% 57
25 - 29	243	208	451						
30 - 34	262	304	566						
35 - 39	384	360	744						
40 - 44	521	481	1.002						
45 - 49	480	421	901						
50 - 54	472	429	901						
55 - 59	377	381	758						
60 - 64	393	393	786	1.139	1.491	2.630	% 20	% 25	% 23
65 - 69	312	358	670						
70 - 74	295	300	595						
75 - 79	203	258	461						
80 - 84	155	223	378						
> 84	174	352	526						
	5709	5861	11570	5709	5861	11570	% 100	% 100	%100

Iturria: INE, biztanleen Udal-errola 2020



Biztanle atzeritarren bilakaera


	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
GUZTIRA	383	530	650	700	746	812	859	823	879	924	898	956	1026	1086
Gizonezkoak	195	281	374	373	400	437	462	442	464	495	472	504	531	554
Emakumezkoak	188	249	276	327	346	375	397	381	415	429	426	452	495	532



Biztanleria atzeritarren bilakaera hirukoiztu egin da 2007tik, eta gizon migratzaileen prebalentzia handiagoa da emakume migratzaileena baino.

3.3 ERAKETA

Elgoibarren, goi-mailako ikasketak dituen biztanleriaren tasa % 13.74 zen 2018an, Gipuzkoako batez bestekoa baino lau puntu txikiagoa (% 17.9) eta E AEko batez bestekoa (% 18.32) baino lau puntu eta erdi txikiagoa. Hala ere, lanbide-heziketa dutenen tasa (% 23.5) Gipuzkoako batez bestekoa (% 19.2) eta Euskal Autonomia Erkidegokoa (% 18.1) baino askoz handiagoa da.



Iturria Eustat. 10 urtetik gorako biztanleak, bigarren mailako ikasketak, lanbide-ikasketak edo unibertsitate-ikasketak dituztenak.

Elgoibarko, Gipuzkoako eta Euskal Herriko lurraldetasunari dagokionez, 2 urte eta gehiagoko erdaldunen, euskaldunen eta ia-euskaldunen euskalduntze-tasa honako hau zen 2016an:

Lurraldea	Euskalduna		Erdi-euskalduna		Erdalduna	
Elgoibar	6.932	% 60	1.693	% 15	2.507	% 22
Gipuzkoa	398.260	% 55	110.369	% 15	185.527	% 26
Euskal Herria	895.942	% 41	391.897	% 18	835.056	% 38


Iturria: Eustat. 2016

3.4 EKONOMIA-JARDUERA

Jarduera ekonomikoa, aztertutako aldiaren produkzio-prozesuan sortutako balio berria adierazten duen Balio Erantsi Gordinaren (BEG) ehunekoaren arabera aztertuta. Udal-mailako Balio Erantsi Gordinaren datuen aldizkakotasuna bost urtean behin lortzen da, erabilgarri dauden urteak Input-Output (TIO) taulen oinarriak eguneratzearekin lotuta daudelako. Hau da, 0 eta 5ean amaitutako urteak, nekazaritzaren sektorean oinarritutakoak. Industriaren, eraikuntzaren eta zerbitzuen datuak konikoak ziren 2018a:

Lurraldea	Nekazaritza (% BEG)	Industria (% BEG)	Eraikuntza (% BEG)	Zerbitzuak (% BEG)
Elgoibar	0.33	58.57	2.38	38.71
Gipuzkoa	0.58	27.82	6.24	65.35
Euskal Herria	0.87	24.12	5.84	69.16

Iturria: Eustat. 2018



Iturria: Eustat. 2018

3.5 LANGABEZIA-TASA

Elgoibarko langabezia tasa 2021eko apirilean, % 9.5 zen (% 6.85 gizonezkoen tasan eta emakumezkoenentzen %12.59). Desberdintasun txikiak daude Gipuzkoako datuekin alderatuz, EAEkoak baino nabarmen txikiagoak.

Lurraldea	Langabezia tasa orokorra	Gizonezkoen langabezia tasa	Emakumeen langabezia tasa
Elgoibar	9.5	6.85	12.59
Gipuzkoa	9.6	8.27	11.03
Euskal Herria	11.8	10.35	13.28

Iturria: Elgoibarko Udala

4 ADIKZIOEN EGOERA ELGOIBARREN (2.019)


Teknologien erabilerak, jokoa barne, edo substantzien kontsumoak ez dute zertan adikzio baten bukatu behar; baina erabiltzaileen bizitza pertsonala baldintzatu dezakete, bai alderdi fisikoan, psikologikoan zein sozialean eta bizikidetzan ere, eta honek, aldi berean, eragina izan dezake komunitatean. Horregatik, garrantzitsua da erabilerak eta ohitura horiek ezagutzea, ez bakarrik gazteen artean, baita helduen artean ere.

Arrazoi honengatik, 2019an galdetegi zabal bat egin zitzaien Elgoibarko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako 825 ikasleei. Ikasle bakoitzak bere galdetegia era anonimoan beteta, legezko eta legez-kanpoko substantzien kontsumoa edota substantziarik gabeko adikzioen inguruan dituzten ezagutzak, pentsamenduak eta jarreraren inguruko informazioa lortu genuen. Honako hauek izan dira parte hartu duten ikastetxeak eta ikasleak generoaren arabera:

IKASTETXEA	EMAKUMEA	GIZONA	EZ BITARRA	EZ DU ERANTZUN	GUZTIRA
IES Elgoibar BHI	258	188	11	30	487
IMH	2	80	1	2	85
Elgoibarko Ikastola	109	137	7	-	253
GUZTIRA	369	405	19	32	825

Iturria: Elgoibarko Udala

Hezkuntza-etapak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailatik, Batxilergo eta Heziketa Zikloetara doaz; gutxi gorabehera, 100 pertsona baino gehiago daude maila bakoitzeko, Lanbide Heziketakoak izanik gutxiengoak.



Iturria: Elgoibarko Udala

Generoaren arabera, % 44.7 emakumeak dira, % 49.1 gizonak, % 2.3 ez bitarrak eta % 3.9k ez du bere sexua zehaztu. Honela banatzen dira:

ADINA	EMAKUMEA	GIZONA	EZ BITARRA	GUZTIRA
11 urte	7	3		10
12 urte	58	66	2	126
13 urte	69	67	2	138
14 urte	54	53	5	112
15 urte	50	59	3	112
16 urte	66	68	4	138
17 urte	56	59	3	118
18 urte edo gehiago	7	22		29
GUZTIRA	367	397	19	783*

Iturria: Elgoibarko Udala

*42 pertsonen ez dute adierazi adina edota sexua

4.1 GAZTEEN KONTSUMOAK ETA PORTAERAK

4.1.1 Alkohola probatzea eta kontsumitzea

Alkohola, espero zen bezala, Elgoibarko nerabeen hasierako droga da. "Noizbait edan al duzu alkohola bizitzan?" galderari baietz erantzun dio aztertutako biztanleriaren % 60,6k, hau da, gizonen % 62,5ek, emakumeen % 59,1ek eta bitarrak ez diren pertsonen % 89,5ek. Adinari dagokionez, gazteenek maiztasun gutxiagorekin edaten dute (% 9,3k 12 urterekin) zaharragoak direnekin konparatuz (% 95-96k 16-17 urterekin).

ADINA	BAI	GUZTIRA	TASA
11	0	12	% 0
12	12	129	% 9.3
13	51	143	% 35.7
14	66	113	% 58.4
15	91	113	% 80.5
16	131	138	% 94.9
17	114	118	% 96.6
18 edo +	21	28	% 75
GUZTIRA	486	794	% 61.2


Iturria: Elgoibarko Udala

Adinaren eta generoaren arabera, 14 urtera arte, gizonak emakumeek baino gehiago probatzen dute alkohola. 15 eta 16 urterekin aldiz, emakumeek nabarmenki gaintitzen dituzte gizonak, baina 17 urtetik aurrera joera berriz aldatzen da, gizonetakoak aurretik jarritik. Bitarrak ez diren pertsonen kasuan, 17 urtera arte, gizon eta emakumeen aurretik jartzen dira, hau da, ehuneko handiagoa da alkohola probatzen duena.

Adina	Probatu Gizonak	Probatu Emakumeak	Probatu Ez Bitarrak	Bataz bestekoa
12 urte	%13.6	% 3.4	% 50*	% 9.3
13 urte	% 40.3	% 29	% 100*	% 35.7
14 urte	% 62.3	% 53.7	% 80	% 58.4
15 urte	% 74.6	% 86	% 100	% 80.5
16 urte	% 91.2	% 98.5	% 100	% 94.9
17 urte	% 96.6	% 96.4	% 100	% 96.6
18 urte edo gehiago +	% 81.8	% 57.1	% 0	% 75

Iturria: Elgoibarko Udala


* Pertsona batek edo bik besterik ez



Alkohola kontsumitzen hasteko adina, hasten diren pertsonen kasuan soilik (hamar gaztetik sei), **13 urte eta bost hilabetekoa** da, tabakoa baino urtebete lehenago eta kalamua baino hamabost hilabete lehenago hasten dira kontsumitzen.

14 urterekin hasi dira alkohola probatu duten hamar pertsonetatik zortzi, zehazki % 82.2. Moda 13 eta 14 urte bitartean ezartzen da, eta oso gutxi dira 15 urte baino gehiagorekin alkohola probatzen dutenak. Aitzitik, alkohola probatzen duten bost pertsonatik batek, 12 urte edo gutxiago ditu (%19.3).

Generoaren arabera, gizonak lehenago hasten dira alkohola edaten emakumeak baino; zehazki 13 urte eta 3 hilabeterekin; emakumeak, berriz, 13 urte eta 8 hilabeterekin hasten dira, hau da, bost hilabete geroago. Bitarrak ez diren pertsonak urtebete lehenago hasten dira, 12 urte eta 6 hilabeterekin, baina lagina ez da oso esanguratsua adinaren arabera (2-5 pertsona).



Iturria: Elgoibarko udala

12 urterekin edo lehenago alkohola kontsumitzen hasten diren gazteen % 19.3tik, pertsona ez bitarren %47.4k kontsumitzen dute adin honetan, hau da pertsona horien ia erdiak; gizonak % 24.3ko tasarekin kontsumitzen dute, aldiz, emakumeen hasiera goiztiarra baxuena da, % 10.6ko tasarekin. Desberdintasun horiek generoaren eta pertsonen bizi-esperientziaren arabera alkoholarekin egiten den kontsumoa desberdina azpimarra dezakete.

“Nork eskaini zizun lehen kontsumo hori?” Galdetzerakoan, lagunen taldea (% 69) da nabarmenenena, ondoren, aita edo ama (% 15.7) eta jarraian, beste senide batzuk edo anai-arrebak (% 7,4).

Nork eskaini zizun?	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Ez bitarrak
Aita/Ama	%15.7	%10	%20.6	%23.5
Neba-arrebak	%2	%2.3	%1.6	%5.9
Lagunak	%69.1	%75.9	%65.7	%47.1
Beste senide batzuk	%5.4	%6.4	%4.8	%5.9
Beste pertsona batzuk	%6.6	%5.5	%7.3	%17.6

ALKOHOLA KONTSUMITZEA:

Hiru gaztetik ia bik (% 61.2) alkohola probatu badute, proportzio berean daude (probatu duten hirutik ia bik) azkenaldian kontsumitu dutenak, 12 eta 18 urte bitarteko biztanleen edo nagusien **% 38.8k**

Alkohol unitateak	Tasa
0.1 - 5	% 7.5
5.1 - 10	% 7.5
10.1 - 15	% 5.2
15.1 - 20	% 2.7
> 20	% 15.9
Kontsumo eza	% 61.2

Iturria: Elgoibarko Udala

Kontsumoa alkohol-unitatetan edo alkohol-gramotan neur daiteke, eta alkohol-unitate bat 10 gramo alkoholetan edo 100 ml-ko ardo-baso batean, garagardo-kaña batean edo graduazio altuko alkohol-txupatu batean dagoen alkohola da.

Kontsumo hau baxua da (0.1etik 5 unitatera) aztertutako pertsonen % 7.5en artean, baina **nabarmenezkoa da gazteen % 15.9k asteburuko egun bakar batean 20 unitate edo 200 gramo alkohol kontsumitzen dituela.**

Alkohol unitateak	Gizonak	Emakumeak	Ez bitarrak
0.1 - 5	% 7.2	% 8.7	% 0
5.1 - 10	% 5.9	% 9.2	% 21.1
10.1 - 15	% 4.5	% 6.3	% 10.5
15.1 - 20	% 2.5	% 2.4	% 15.8
> 20	% 18.5	% 14.4	% 10.5
Kontsumo eza	%61.4	%59	% 42.1

Iturria: Elgoibarko Udala

Generoaren arabera aztertzean, tarte baxuetan eta ertainetan (0.1etik 15era bitarte) kontsumoa nabarmen handiagoa da emakumeen artean; prozesua irauli egiten da kontsumo handieneko tartetan, hau da, 20 unitatetik gorako kontsumoan, gizonak emakumeek baino lau puntu gehiago dituzte (**% 18.5 vs % 14.4**); pertsona ez-bitarrek, berriz, kontsumo altuko tasarik baxuena dute, % 10.5ekin (emakumeek baino lau puntu gutxiago eta gizonak baino zortzi puntu gutxiago).

ADINA UNITATEAK	12	13	14	15	16	17	18 o +
0	% 96.8	% 85.3	% 74.3	% 56.6	% 22.8	% 23.1	% 41.4
0.1 - 5	% 1.6	% 7.7	% 8.8	% 11.5	% 12.5	% 4.3	% 13.8
5.1 - 10	% 0.8	% 2.1	% 3.5	% 10.6	% 18.4	% 12.8	% 6.9
10.1 - 15	% 0.8	% 0.7	% 0.9	% 5.3	% 18.4	% 5.1	% 10.3
15.1 - 20	--	% 0.7	% 1.8	% 1	% 5.9	% 6	% 6.9
> 20	--	% 3.5	% 10.7	% 15	% 22	% 48.7	% 20.7
GUZTIRA	% 3.2	% 14.7	% 25.7	% 43.4	% 77.2	% 76.9	% 58.6

Iturria: Elgoibarko Udala

Kontsumoak, logikoa denez, izugarri aldatzen dira adinaren arabera. Horrela, 12 urterekin, hogeita hamar pertsonatik batek kontsumitzen du alkohola, batez ere kantitate txikian. 13 urterekin zazpitik batek, adin honekin kontsumitzen den alkohol kopurua handitu egiten da. Adin horretan, 100 gaztetik 4k alkohol kantitate handiak kontsumitzen ditu (200 gr-tik gora alkohol puru edo 20 unitate). 14 urterekin ia bikoiztu egiten dituzte 13 urtekoen arten egiten den kontsumoa, eta 15 urterekin, 10etik 4k baino gehiagok edaten dute 20 unitatetik gora (% 15). 16 urterekin izaten dira kontsumo-tasarik altuenak, 10 pertsonatik ia 8k edaten baitute, eta horietatik % 22k, 20 unitate baino gehiago, nahiz eta gehieneko tasa hori 17 urteko bitik batera iristen den.

Ikerketan generoa sartuz gero, kontsumorik esanguratsuenak non ematen diren ikus dezakegu. Horrela, argi eta garbi ikusten dira hiru adin-talde desberdin: 12 -14 adin tarteko gizonak emakumeek eta ez bitarrek baino kontsumo-tasa handiagoa dute, eta horiek murrizten doaz 12 urtetik 13ra pasatzean. Arreta deitzen du 13 urteko emakumeek kontsumo-tasa oso handia dutela (200 gramo alkohol gorakoa), gizonak baino bi aldiz handiagoa: % 4.3 eta % 1,5, hurrenez hurren. Aldiz, adin tarte bereborean, pertsona ez bitarrek alkohol gutxiago kontsumitzen dute (50 eta 100 gramo artean).

Bigarren adin-taldean (15-17 urte), alkoholaren kontsumo-tasa handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino, bereziki, 16 urtekoen artean, 12 puntuko aldearekin; baina, 200 gramo alkohol baino gehiagoko kontsumoa handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino, 15 urtekoen artean izan ezik, alderantzizkoa baita. Adin-talde horretan, bitarrak ez diren pertsonak ere aurreko taldean baino alkohol-kontsumo handiagoak dituzte.

		0.1-5	5.1-10	10.1-15	15.1-20	>20
12	G	% 1.5	% 1.5	% 0	% 0	% 0
	E	% 1.7%	% 0	% 0%	% 0	% 0
	EB	% 0	% 0	% 50₍₁₎	% 0	% 0
13	G	% 8.9	% 3.0	% 0	% 1.5	% 1.5
	E	% 5.8	% 0	% 1.4	% 0	% 4.3
	EB	% 0	% 50₍₁₎	% 0	% 0	% 0
14	G	% 11.3	% 1.9	% 0	% 1.9	% 11.3
	E	% 7.4	% 3.7	% 1.8	% 1.8	% 11.1
	EB	% 0	% 20₍₁₎	% 0	% 0	% 0
15	G	% 10.2	% 10.2	% 6.8	% 0	% 13.5
	E	% 14.0	% 12.0	% 4.0	% 0	% 18.0
	EB	% 0	% 0	% 0	% 33.3₍₁₎	% 0
16	G	% 10.3	% 13.2	% 11.8	% 2.9	% 30.9
	E	% 15.1	% 22.7	% 24.2	% 6.0	% 13.6
	EB	% 0	% 25₍₁₎	% 25₍₁₎	% 50₍₂₎	% 0
17	G	% 3.4	% 5.1	% 5.1	% 5.1	% 55.9
	E	% 5.3	% 19.6	% 5.3	% 7.1	% 41.1
	EB	% 0	% 33.3 ₍₁₎	% 0	% 0	% 66.6₍₂₎
18 edo +	G	% 4.5	% 9.0	% 13.6	% 9.0	% 22.7
	E	% 42.8	% 0	% 0	% 0	% 14.3
	EB	--	--	--	--	--

G: Gizona, **E:** Emakumeak, **EB:** Ez bitarrak

Iturria: Elgoibarko Udala

Hirugarren taldean, 18 urtetik gorakoetan, alkoholaren kontsumoa antzekoa da gizonen eta emakumeen artean, % 60 ingurukoa, baina generoaren arabera argi eta garbi bereizita: emakumeek, orokorrean, alkohol kantitate txikiak kontsumitzen dituzte (50 gramo baino alkohol gutxiago) gizonek, berriz, (% 31,7k) 150 gramotik gora kontsumitzen dute. Talde honetan ez dago bitarra ez den pertsonarik.

ALKOHOLA KONTSUMITZEKO EDO EZ KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK

Garrantzitsua da gazteek alkohola kontsumitzeko edo ez kontsumitzeko dituzten arrazoiak ezagutzea. Honako hauek dira garrantzitsuenak ("asko" edo "nahiko" erantzuna izan dutenak):

ALKOHOLA KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK	
Ondo pasatzeko, dibertitzeko, gozatzeko	% 67.4
Nire lagunek egiten dutelako	% 54.7
Arazoez ahazteko	% 50.9
Taldean integratuta sentitzeko	% 43.9
"Kolokatzeko", mozkortzeko	% 44.6
"Puntua" hartzeko	% 42.7
Modan dagoelako. Mundu guztiak egiten du	% 39.8
Sentsazio berriak bizitzeko	% 41.5
Ligatzeko	% 42.4
Hobeto erlazionatzeko	% 41.2
Egunero egiten ez dudana zerbaitegitearren	% 23.3

Iturria: Elgoibarko Udala

ALKOHOLA EZ KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK	
Osasunean kalte egiten duelako	% 52.0
Ez dudalako nahi, besterik gabe	% 14.1
Ondo pasatzeko ez dudalako alkoholik behar	% 7.8
Kontsumoaren arriskuagatik	% 8.5
Kontrola galtzen delako	% 6.2
Gurasoek jakingo dutelako	% 5.5
Efektu gogaikarriengatik	% 3.3
Beste arrazoi batzuengatik	% 1.0

Iturria: Elgoibarko Udala

ALKOHOLAK ERAGINDAKO ARRISKUAK: AUDIT TESTA

Audit testa, alkohol kontsumoaren ondorioz garatutako desorekak identifikatzeko balio duen inkesta da. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) sortu zuen 1989. urtean, baina 1992. urtean eguneratu zuten. Alkohol kontsumo arriskutsu eta kaltegarriak dituzten pertsonak identifikatzeko balio du. Arrisku egoeran dauden pertsona edaleekin lan egiteko marko aproposa eskaintzen du, bai alkohola guztiz utzi edo kantitateak murrizteko, zein kontsumoak eragin ditzakeen kalteak ekiditeko. AUDIT testak, alkoholarekiko dependentzia eta zenbait ondorio zehatz antzemateko ere erabiltzen da.

Arrisku kontsumoa, mendekotasun sintomak eta alkoholaren kontsumo kaltegarria neurtzen dituzten 10 galderaz osatua dago. Balorazioa 0 eta 40 puntu artekoa da eta helduen artean honela interpretatzen da:

- 0tik 7 puntura: Abstinentsia edo arrisku baxua
- 8tik 15 puntura: Alkoholarekin arazoak izateko erdi mailako arriskua.
- 16tik 19 puntura: Alkoholarekin arazoak izateko arrisku handia.
- 20 puntu edo gehiago : Alkoholaren mendekotasunaren ebaluaketa diagnostikoa

Test hau bereziki pertsona helduekin erabili izan da, ez hainbeste nerabeekin; beraz, lau estatistiken mozketak-mailak ez daude argi zehaztuta, baina nazioarteko adostasuna dago maila horiek, nerabezaroan, **puntuazio baxuagoekin** lortzen direla. Aztertutako populazioan, 12 eta 20 urte bitartekoetan, honako datu hauek lortu dira:

	GIZONA	EMAKUMEA	EZ BITARRA	GUZTIRA
0	189 – % 46.7	166 – % 45.0	4 – % 21.1	385 – % 46.7
1 - 7	134 – % 33.1	140 – % 38.0	11 – % 57.8	287 – % 34.8
8 - 15	68 – % 16.8	59 – % 16.0	4 – % 21.1	135 – % 16.4
16 - 19	9 – % 2.2	2 – % 0.5	0 – % 0	11 – % 1.3
> 19	5 – % 1.2	2 – % 0.5	0 – % 0	7 – % 0.8
GUZTIRA	405	369	19	825*

Iturria: Elgoibarko Udala

Helduen parametroei jarraituz, 13 eta 20 urte bitarteko 18 pertsona (% 2.1) kontrolatu beharko lirateke, alkohol-kontsumoarekin jarraituz gero alkohol-mendekotasuna izateko arrisku handia dutelako. Eskala bat jaisten badugu, 8 puntu baino gehiagoko pertsonen artean, Elgoibarko udalerriko 135 pertsonak edo ikertutako 13 eta 20 urte bitarteko biztanleriaren % 16.4k alkoholarekiko mendekotasuna izateko arrisku nahiko handia izan dezakete bizitzako oso adin goiztiarretan. Hala ere, nabarmentzekoa da gure gazteen **% 81,5ek ez duela arriskurik alkoholaren kontsumoagatik.**


4.1.2 Tabakoa probatzea eta kontsumitzea

Tabakoa, duela urte batzuk arte, drogen kontsumoan lehenengo substantzia izan da, baina gaur egun, alkoholak bigarren postura eraman du. Probatzeko eta kontsumitzeko tasak nabarmen jaitsi dira eta azken urteotan egin den prebentzio-lanaz gain, Eusko Jaurlaritzako adikzioen lege eta komunitateak izan duen iritzi eta jokabide aldaketa, funtsezkoak izan dira gaur egun azken urteetako tabako-kontsumoaren tasarik txikiena izateko.

TABAKOA PROBATZEA

Noizbait tabakoa probatu duten gazteen eta nerabeen tasa (gutxienez zigarro erdia) **%28.2 da, nagusi izanik pertsona ez bitarrak** (% 68.4), ondoren gizonak (% 27.7) eta azkenik, emakumeak (% 28.5).

Iturria: Elgoibarko Udala



Adinaren arabera, hiru gaztetik ia batek 15 urterekin probatzen du tabakoa. Adin horretatik aurrera, jauzi kuantitatibo handia gertatzen da; 15 urterekin % 31.9 izatetik 16 urterekin % 47.1 izatera pasatuz, 15 puntuko igoerarekin. Adin horretatik aurrera, tasa pixka bat igotzen da eta adinez nagusi direnen artean % 55 ingurukoa da. Generoaren arabera, emakumeak

adin goiztiarragoan hasten dira tabakoa kontsumitzen eta gizonezkoekin alderatuz, tasa altuagoak dituzte adin tarte guztietan, 16 urte eta 18 urtetik aurrera izan ezik. Bitarrak ez diren pertsonen 14-17 urte bitartean probatzen dute eta ehuneko altuetan.


Adina	BAI	GUZTIRA	TASA
11	0	12	% 0
12	11	128	% 8.6
13	20	143	% 13.9
14	18	113	% 15.9
15	36	113	% 31.9
16	65	138	% 47.1
17	58	118	% 49.2
18 edo +	16	29	% 55.2
GUZTIRA	224	794	% 28.2

Iturria: Elgoibarko Udala

Adina	Probatu Gizonak	Probatu Emakumeak	Probatu Ez Bitarrak	Batez besteko tasa
11 urte	% 0	% 0	% 0	% 0
12 urte	% 10.6	% 6.9	% 0	% 8.6
13 urte	% 14.9	% 13.1	% 0	% 13.9
14 urte	% 5.7	% 16.6	% 60	% 15.9
15 urte	% 20.3	% 40	% 66.7	% 31.9
16 urte	% 42.6	% 48.5	% 100	% 47.1
17 urte	% 22	% 53.6	% 66.7	% 49.2
18 + urte	% 54.5	% 57.1	% 0	% 55.2
GUZTIRA	% 27.7	% 28.5	% 68.4	% 28.2


Iturria: Elgoibarko Udala

Zigarro elektronikoak, nikotinadunak edo nikotinarik ez dutenak, noizbait kontsumitu duten galdetzerakoan, % 31.7k baietz erantzun du. Generoaren arabera, bitarrak ez diren pertsonen % 73.7k (19tik 14k), gizonen % 34.7k (404tik 14k0) eta emakumeen % 27.2k (368tik 100ek).




Iturria: Elgoibarko Udala

Tabakoa kontsumitzeen hasteko adinaren kurba eta alkoholarenak desberdinak dira. Hasteko, 15 urterekin ezartzen da moda, 15 urte izanik gailurra eta dutenak hamarretik bat 12 urte edo gutxiagorekin hasten da, alkoholaren erdia.



Iturria: Elgoibarko Udala

Generoaren arabera, tabakoa kontsumitzen hasteko kurba oso desberdina da. Gizonak 14 urte eta 3 hilabeterekin hasten dira, eta hasierako tasak handitzen doaz adinaren arabera, gehienez ere 14-15 urterekin (% 29.2); emakumeak aldiz, 14 urte eta 9 hilabeterekin hasten dira eta hauek ere gailurra 15 urtetan dute % 37.9rekin. Bitarrak ez diren pertsonak, 13 urte eta 9 hilabeterekin hasten dira, gailurrik handiena 15-16 urte bitartean izanik (% 29.2).




Iturria: Elgoibarko Udala

12 urterekin edo lehenago hasten dira tabakoa erretzen gizonen % 9.6, emakumeen % 7.8 eta bitarrak ez diren pertsonen % 23.1, eta desberdintasun nabarmenak dituzte, alkoholarekin gertatzen zen bezala, pertsona bitarrekin.

TABAKOA KONTSUMITZEA:

Aztertutako gazteen % 28.2k tabakoa probatu badu, erdiak (% 14.3) eskuarki kontsumitzen du (azken 30 egunetan) eta horietatik herenak baino gehixeagok, % 4.4k, egunero edo ia egunero erretzen du.




Emakumeek gainerako generoek baino tasa handiagoa dute (% 16), gizonen tasa % 12.8 baita eta bitarrak ez diren pertsonen % 10.5. Egutero edo ia egutero galdetzerakoan, aldaketa nabaria dago; izan ere, aztertutako pertsona ez bitarrek ez baitute egutero erretzen; emakumeen kasuan % 3,8k egiten du eta gizonen % 5.2k.

Adinaren arabera, 12 urteko pertsonen % 4,7k erretzen du; tasa hori bikoiztu egiten da 13 urterekin, eta tasarik txikienera jaisten da 14 urterekin. 15 urterekin tasa hiru aldiz biderkatzen da aurreko adinarekin alderatuta, eta 16 urterekin berriro bikoizten da, % 28.3ko tasara iritsiz; hala, berriz ere 17 urterekin erortzen da, eta tasarik altuenak adin nagusikoen artean daude, % 41,4rekin.

Generoaren arabera, bitarrak ez diren pertsonen % 16-17 urte bitartean bakarrik erretzen dute, eta, oro har, emakumeek gizonezkoek baino tasa handiagoetan erretzen dute.

Adina	Kontsumitu Gizonak	Kontsumitu Emakumeak	Kontsumitu Ez bitarrak	Batez besteko tasa
12 urte	% 6.1	% 3.4	% 0	% 4.7
13 urte	% 10.4	% 8.7	% 0	% 9.8
14 urte	% 1.9	% 5.9	% 0	% 4.4
15 urte	% 5.1	% 26	% 0	% 15
16 urte	% 27.9	% 28.8	% 25	% 28.3
17 urte	% 11.9	% 21.4	% 33.3	% 16.9
18 urte +	% 40.9	% 42.9	% 0	% 41.4

Iturria: Elgoibarko Udala



Iturria: Elgoibarko Udala

4.1.3.Kalamua probatzea eta kontsumitzea

Kalamua gazteen kontsumoetan agertzen den legez kanpoko lehen droga da. Normalean, tabakoa agertu eta urtebetera hasten zen kontsumo hau, baina tabakoaren hasiera atzeratzean, bata eta bestearen tarteko distantzia txikiagoa da.


KALAMUA PROBATZEA:

Kalamua bizitzan noizbait probatu duten gazteen eta nerabeen tasa (porro erdia, gutxienez) **% 26.1ekoa** da; gizonezkoen tasa, % 28.1ekoa emakumeena (%23.6) baino altuagoa da, ehuneko biak bitarrak ez diren pertsonenak baino baxuagoak dira (% 50).

Adinaren arabera, 13 urterekin ehun gaztetik hiruk kalamua probatu dute. Adin horretatik aurrera, jauzi kuantitatibo handia gertatzen da: 13 urtekoen % 2,9tik 14 urtekoen % 15.5era, eta 15 urtekoen % 36ra. Beraz, igoera 12.6 puntukoa (% 434) eta 20.5 puntukoa (% 132ko igoera) izan da urte batetik bestera. Tasarik altuenak 16 urterekin agertzen dira, % 53,5ek probatu du kalamua adin honekin, eta 18 urte edo gehiagokoetan, lau pertsonatik hiruk probatu dute kalamua.

ADINA	EZ	BAI	TASA
11 urte	12	0	% 0
12 urte	122	1	% 0.8
13 urte	135	4	% 2.9
14 urte	93	17	% 15.5
15 urte	71	40	% 36
16 urte	59	68	% 53.5
17 urte	57	50	% 46.7
18 urte edo +	6	17	%73.9

Iturria: Elgoibarko Udala




Iturria: Elgoibarko Udala

Generoaren arabera, emakumeak, oro har, adin goiztiarragoetan hasten dira kalamua kontsumitzen, eta gizonezkoenak baino tasa handiagoak dituzte 16 urte arte. Adin horretatik aurrera, kalamua probatzen duten gizonezkoen tasa

emakumezkoena baino handiagoa da. Bitarrak ez diren pertsonek 13 eta 17 urte bitartean probatzen dute kalamua.


Adina	Probatu Gizonak	Probatu Emakumeak	Probatu Ez bitarra	Batez besteko tasa
11 urte	% 0	% 0	% 0	% 0
12 urte	% 0	% 1.7	% 0	% 0.8
13 urte	% 1.5	% 3	% 50	% 2.9
14 urte	% 15.4	% 13.2	% 40	% 15.5
15 urte	% 26.3	% 44	% 66.7	% 36
16 urte	% 68.4	% 39.4	% 75	% 53.5
17 urte	% 50	% 43.6	% 50	% 46.7
18 urte +	% 82.3	% 50	% 0	% 73.9

Iturria: Elgoibarko Udala



Kalamua kontsumitzen hasteko adina **14 urte eta zortzi hilabetekoa** da, kopururik altuena % 38,9koa da 15 urterekin. 12 urterekin edo gutxiagorekin % 4,3 hasten dira, alkoholarekin konparatuta hamabost puntu gutxiago eta

tabakoa baino sei puntu gutxiago.




Generoaren arabera, gizonek 14 urte eta 7 hilabete dituztenean kontsumitzen dute kalamua, eta emakumeek, berriz, zazpi hilabete geroago, 15 urte eta 2 hilabete dituztenean. Bitarrak ez diren pertsonen kasuan, 13 urte eta 9 hilabeterekin hasten dira.

Emakumeen artean ez dago 11 urte bete baino lehen kontsumitzen hasi denik, 12 urterekin % 1,2 hasi da. Gizonen % 5,1 12 urterekin edo lehenago hasi da. Ez-bitarren kasuan, berriz, kontsumoa 10 urterekin hasten da, eta 14 urterekin ematen da tasarik altuena, % 33.

KALAMUA KONTSUMITZEA:

Kalamua kontsumitzea adinaren arabera




Iturria: Elgoibarko Udala

kalamua probatzean agertzen zen eskema berari jarraituz.

Azken 30 egunetan kalamua kontsumitu duten gazte eta nerabeen tasa % **10.2koa** da, probatu dutenen artean % 39koa (%26.1). Gizonen tasa nabarmen handiagoa da (% 12.6) emakumeekin konparatuz (% 7.6), baina bitarrak ez diren pertsona baino txikiagoa (% 15.8),

Adinaren arabera, kontsumoen tasak, probatze-tasaren parametro berari jarraitzen dio: 16 urterekin agertzen da lehendabiziko gailurra eta adin nagusikoen artean ere tasa oso altuak topatzen dira, nahiz adin tarte honen lagina ez den oso adierazgarria. Oro har, kontsumoak gora egiten du adinarekin batera: 13 urterekin % 0,7ko tasa izatetik 15 urterekin % 14.2ko tasa izatera igarotzen da, eta 16 urterekin tasa bikoiztu egiten da % 27.2 izanik. 17 urterekin tasa % 11ra jaisten da berriro, adinez nagusi direnen artean igoera handia egiteko berriz ere, % 31ekin.

Iturria: Elgoibarko Udala




Generoaren eta adinaren arabera, emakumeek gizonak eta bitarrak ez diren pertsonak baino kontsumo-tasa askoz baxuagoak dituzte. Emakumeen artean, kalamuaren kontsumoa 15 eta 18 urte bitartekoaren artean gertatzen da batez ere, % 15 inguruko tasekin (16 urtekoen kasuan pixka bat altuagoak eta 17 urterekin askoz ere

baxuagoak). Gizonen kontsumoa ere, 15 urtetik aurrera ematen da, 16 urterekin eta 18 urte edo gehiagorekin, % 35etik gorako tasak ematen dira, emakumeen kontsumoa bikoiztuz. Bitarrak ez diren pertsonen artean, kontsumoa 15 eta 17 urte bitartean ematen da, eta tasak % 25etik % 36ra bitartekoak dira, gutxi gorabehera.

EGUNAK		1-3	4-5	6-9	10-19	20-30	TOTALA
12	G	--	--	--	--	--	%0
	E	--	--	--	--	--	%0
	EB	--	--	--	--	--	%0
13	G	--	--	--	--	--	%0
	E	--	%1.4	--	--	--	%1.4
	EB	--	--	--	--	--	%0
14	G	% 3.8	--	--	--	--	%3.8
	E	% 3.7	--	--	--	--	% 3.7
	EB	--	--	--	--	--	% 0
15	G	% 8.5	--	--	--	% 1.7	%10.2
	E	% 10.0	--	% 4.0	% 2.0	--	%16.0
	EB	% 33.3(1)	--	--	--	--	% 33.3
16	G	% 5.9	--	% 5.9	% 11.8	% 11.8	% 35.4
	E	% 10.6	--	% 4.5	--	% 3.0	% 18.1
	EB	--	--	% 25.0(1)	--	--	% 25.0
17	G	% 5.1	--	% 3.4	% 1.7	% 5.1	% 15.3
	E	% 5.4	--	--	--	--	% 5.5
	EB	% 33.3(1)	--	--	--	--	% 33.3
18 o +	G	--	--	% 4.5	--	% 31.8	% 36.3
	E	--	% 14.3	--	--	--	% 14.3
	EB	--	--	--	--	--	% 0

Iturria: Elgoibarko Udala

Kalamuaren eguneroko kontsumoa, batez ere, gizonezkoena da, 16 urtekoen eta adin nagusikoen artean kontsumo tasa handiak dituzte. Emakumeen eguneroko kontsumoa oso txikia da, eta bitarrak ez diren pertsonen artean ez dago horrelako kontsumorik.



Iturria: Elgoibarko Udala

KALAMUA KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK

Garrantzitsua da gazteek kalamua kontsumitzeko edo ez kontsumitzeko dituzten arrazoiak ezagutzea. Hona hemen garrantzitsuenak:

KALAMUA KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK	
Kuriositateagatik	% 31.5
Ondo pasatzeko era berriak bilatzeko	% 7.2
Inguruan dagoelako	% 3.4
Bizitza era desberdin batean bizitzen delako esan zidaten	% 1.9
Lagun taldeak egiten duelako	% 2.8
Frustrazio edo gatazka baten ondorioz	% 1.2
Ezagutzen ditudan pertsona interesgarriek egiten dutelako	% 0.4
Pertsona nagusien bizimoduari kontra egiteko	% 0.2
Beste arrazoi batzuk	% 3.0

Iturria Elgoibarko Udala

Marihuana edo haxixa kontsumitzen dutenean, testuinguru honetan egoten dira:

KALAMUA KONTSUMITZEKO TESTUINGURUA	
Lagunekin nagoenean	% 19.6
Festaren baten nagoenean	% 18.2
Bakarrik nagoenean	% 4.8
Zer egin ez dakidanean	% 3.2
Ziurtasun eza sentitzen dudanean	1.1%

Iturria: Elgoibarko Udala

4.1.4 Beste droga batzuk probatzea eta kontsumitzea


Speeda, kokaina, haluzinogenoak (LSD, tripiak), mongiak edo perretxiko haluzinogenoak, ketamina, estasia, inhalatzaileak (pigmentua, espraiak) edota heroína, inoiz probatu dituzten galdetu zaie honako emaitza hauekin:

Substantzia	Probatu Gizonak	Probatu Emakumeak	Probatu Ez bitarra	Batez besteko tasa
Speeda-anfetak	% 4.9 ⁽²⁰⁾	% 1.4 ⁽⁵⁾	% 0	% 3.2
Metanfetamina	% 3.7 ⁽¹⁵⁾	% 0.8 ⁽³⁾	% 0	% 2.2
GHB	% 2 ⁽⁸⁾	% 1.1 ⁽⁴⁾	% 0	% 1.5
LSD-keta-onddoak	% 2.7 ⁽¹¹⁾	% 1.1 ⁽⁴⁾	% 0	% 1.8
Kokaina	% 4.2 ⁽¹⁷⁾	% 1.6 ⁽⁶⁾	% 0	% 2.9
Estasia	% 3.2 ⁽¹³⁾	% 2.2 ⁽⁸⁾	% 0	% 2.7
Arnasgarriak	% 2.7 ⁽¹¹⁾	% 1.1 ⁽⁴⁾	% 0	% 1.8
Heroína	% 2.2 ⁽⁹⁾	% 1.1 ⁽⁴⁾	% 0	% 1.6

Iturria: Elgoibarko Udala


Speeda eta anfetaminak, kokainarekin batera, gehien probatutako substantziak dira, ondoren estasia eta metanfetaminak datoz. Gainerako substantziak ez dira % 2ra iristen, baina generoaren arabera, gizonek emakumeek baino tasa altuagoa dute substantzia guztietan, kokainainaren tasa gailenduz, % 4.2koa izanik. Azpimarratu behar da bitarrak ez diren pertsonak ez dutela probatu aipatutako substantzietako bat ere.

Iturria: Elgoibarko Udala



Speeda, anfetaminak, kokaina eta estasia adinaren arabera aztertzean, ikusten da 15 urtera arteko kontsumo tasak txikiak direla. 16

urtetik aurrera, tasek gora egiten dute; eta tasa altuenak 18 urte edo gehiagoko pertsonen artean daude hiru substantzietan, % 17-24 ingurukoak direnak. Nabarmentzekoa da 12 urtekoen artean, hiru substantzia ohikoenak probatu izanaren tasak 17 urte bitarteko adinen tasak baino handiagoak direla.



Iturria: Elgoibarko Udala

12 urterekin gizonen 4,5ek eta emakumeen % 3,4k speeda eta kokaina probatzen dituzte. Ezberdintasunik handiena estasiarekin gertatzen da, gizonen % 3k eta emakumeen % 8.6k probatu baitute.

Legez kanpoko beste droga batzuk probatzeak, oro har, tasa baxuak dituen bezala, azken 30 egunetan substantzia horien kontsumoak ere oso tasa txikiak ditu, honela laburbil daitezkeenak:

	Kontsumitu Gizonak	Kontsumitu Emakumeak	Kontsumitu Ez bitarrak	Batez besteko tasa
Speeda-anfetak	% 0.2	% 0	% 0	% 0.1
Metanfetamina	% 0	% 0	% 0	% 0
GHB	% 0	% 0	% 0	% 0
LSD-keta- onddoak	% 0.2	% 0	% 0	% 0.1
Kokaina	% 2.0	% 1.4	% 0	% 1.1
Estasia	% 0.5	% 0	% 0	% 0.4
Arnasgarriak	% 0.2	% 0	% 0	% 0.1
Heroina	% 0	% 0	% 0	% 0

Iturria: Elgoibarko Udala

4.1.5 Teknologien erabilera

Txataren, sare sozialen, bideo-jokoen, on line jokoen, kirol-apustuen, helduentzako orrialdeak ikustearren eta abarren erabileraren inguruan galdetu zaie, eta honako emaitza hauek lortu dira:


	TOTALA	EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ BITARRAK
Txat erabilera	% 91.3	% 97.6	% 88.4	% 68.4
Sare sozialak	% 89.1	% 96.5	% 84.7	% 73.6
Bideo-jokoak	% 44.5	% 29.0	% 58.8	% 42.1
Helduentzako orrialdeak	% 29.3	% 13.6	% 43.5	% 57.9
Interneten dirua jokatzea	% 7.8	% 3.0	% 10.4	% 31.5
Internetik kanpo dirua jokatzea	% 10.2	% 3.6	% 15.3	% 26.3
Internet musika- pelikulak	% 85.3	% 92.4	% 81.0	% 63.2

Iturria: Elgoibarko Udala


Generoaren arabera, emakumeen artean txat eta sare sozialen erabilera gizonetakoena baino 10 puntu altuagoa da (% 97.6 - % 96.5 vs % 88.4 - % 84.7), eta 10-20 puntu gehiago bitarrak ez diren pertsonekin konparatuz. Gauza bera gertatzen da Interneten musika, bideoak, filmak edo telesailak entzuteko edo deskargatzeko jarduerekin.

Gizonek bideo-jokoen erabilera handiagoa egiten dute (% 58.8) emakumeekin konparatuta (% 29) eta baita bitarrak ez diren pertsonekin (% 42.1) alderatuta ere; bitarrak ez diren pertsonak, berriz, maiztasun handiagoarekin begiratzen dituzte helduentzako orrialdeak (%57.9) gizonen (% 43,5) aldean eta baita emakumeen (%13.6) aldean ere; bestalde diru gehiago jotzen dute, bai Interneten eta baita saretik kanpo ere.

Txataren eguneroko edo ia eguneroko erabilera, azken urtean, % 70etik % 80ra bitartekoa izan da gizonen artean, eta % 80tik % 97ra bitartekoa emakumeen artean; 12 eta 15 urte bitarteko pertsona ez-bitarretan artean % 100eko prebalentzia dago.




Antzekoa gertatzen da sare sozialen erabilerarekin; izan ere, tasa altuagoak dituzte emakumeek, batez ere 14 eta 17 urte bitartekoek, eta gizonek % 62 eta % 79 artean jarraitzen dute. Bitarrak ez diren pertsonak adinaren arabera tasak errepikatzen dituzte txataren erabilerarekin.




Iturria: Elgoibarko Udala

Aitzitik, errealitate birtualeko jokoen edo Internet bidezko bideo-jokoen erabilerarekin kontrakoa gertatzen da. Joko horietan, erabilera askoz ere handiagoa da gizonen artean, batez ere 14 urterekin; izan ere, adin honekin, hiru mutilek batek Interneten jotzen du, eta emakumeek berriz, ez dute % 8ko tasa gainditzen (tasa altuena, %8, 15 urtekoek dute). Adin nagusikoetan tasa altuagoak dituzte, baina lagin ez-adierazgarri batean.



Iturria: Elgoibarko Udala

Helduentzako orrietara (indarkeria, sexua eta abar) Internet bidez egindako bisiten kasuan, bitarrak ez diren pertsonak dituzte tasarik altuenak (% 25 eta % 100 artean), ondoren gizonak dituzte tasarik altuenak, 15 urteko mutilen % 20ko gehieneko tasarekin; emakumeek oso tasa baxuak dituzte, 15 urteko adinarekin adibidez, ez dute % 4ko tasa gainditzen.



Iturria: Elgoibarko Udala

4.1.6 Apustuak

Hamar pertsonatik batek, % 10.2k, Internet bidez egiten ditu apustuak (loteria, kiniela, txanpon-makinak, kirol-apustuak...). Zifra hori % 7,8ra jaisten da Internet bidezko apustuetan; eta gizonezkoen tasa emakumeena baino lau aldiz handiagoa da(% 10.4 vs % 3 Internet bidez, eta % 15.3 vs % 3.6 Internetetik kanpo). Bitarrak ez diren hiru/lau pertsonatik batek Interneten eta Internetetik kanpo jokatzeko du dirua.

JOKOA INTERNETETIK KANPO

JOKOA INTERNETEN

Adina	Gizonak	Emakumea	Ez bitarra	Gizona	Emakumea	Ez bitarra
12	% 18.2	% 5.2	% 0	% 9.1	% 3.4	% 0
13	% 13.4	% 2.9	% 50	% 10.4	% 2.9	%100
14	% 9.4	% 3.7	% 80	% 9.4	% 1.9	% 60
15	% 18.6	% 6.0	% 0	% 6.8	% 4.0	% 0
16	% 20.6	% 6.1	% 25	%11.8	% 1.5	% 50
17	% 39.0	% 1.8	% 0	%10.2	% 0	% 0
18 edo +	% 31.8	% 14.3	--	% 4.5	%14.3	--


Iturria Elgoibarko Udala

Adinaren eta generoaren arabera, 12 eta 16 urte bitarteko gizonak, emakumeek baino hiruzpalau aldiz gehiago jotzen dute Internetez kanpo, eta 17 urtekoen artean 21 aldiz gehiago. Desberdintasun handiagoak daude Internet bidezko jokoan, hiru edo zazpi aldiz gehiago, 15 urtekoetan izan ezik, horietan aldea 2.8 puntukoa baita soilik (% 6,8 gizonen artean eta % 4 emakumeen artean). 17 urtekoen artean gizonak bakarrik jotzen dute Interneten. Bitarrak ez diren pertsonak datu irregularrak dituzte, baina gainerako pertsonak baino tasa handiagoak.


Internetez kanpoko jokia egunero edo ia egunero (astean 5 eta 7 egun bitartean) bitarrak ez diren 14 eta 16 urte bitartekoetan agertzen da, adin tarte guztietako artean ez dago % 2tik gorako tasarik, eta emakumeen artean ez da ematen horrelako jokorik, 13 urterekin izan ezik (% 1,4k egiten baitute).

Internet bidezko eguneroko jokia askoz ere baxuagoa da. Emakumeen artean ez da agertzen, pertsona ez bitarren artean 16 urtekoetan bakarrik, eta gizonen kasuan 13, 14 eta 16 urtekoen artean % 1,5etik % 1,9ra bitarteko tasekin.

4.1.7 IKTen gehiegizko erabilera




Interneten gehiegizko erabilerari dagokionez, nabarmentzekoa da inkestatutako pertsonen % 20.3ri maiztasun handiarekin edo oso handiarekin gertatzen zaiela konektatuta daudenean Internet erabiltzeari uzteko zailtasunak izatea. Datu espezifikoago bat da gelditu nahi izan arren Internetera konektatuta jarraitzen dutela maiztasun handiarekin edo oso handiarekin (sarritan edo oso maiz) inkestatuen % 17.8k.




Iturria: Elgoibarko Udala

Generoaren arabera, bitarrak ez diren pertsonen % 31,6ri, emakumeen % 26ri eta gizonen % 15i maiztasun handiarekin edo oso handiarekin zaila egiten zaie konektatuta daudenean Internet erabiltzeari uztea.




Iturria: Elgoibarko Udala

Gelditu nahi izan arren Internetera konektatuta jarraitzen dute maiztasun altuarekin edo oso altuarekin emakumeen % 23.5ek, bitarrak ez diren pertsonen % 21ek eta gizonen % 12.6k.




Iturria: Elgoibarko Udala

Interneten erabilera gatazkatsuen beste adierazle bat Internetera konektatuta egoteagatik, lo gutxiago egitea izan daiteke eta bestalde senitartekoek Internetera konektatuta denbora gutxiago pasatzeko beharra aipatzea.




Iturria: Elgoibarko Udala

Konektatuta egoteagatik maiztasun handiarekin lo gutxiago egiten dute, aztertutako biztanleriaren % 20k, bitarrak ez diren pertsonen % 42.1ek, emakumeen % 23.3k eta gizonen % 16.3k.




Iturria: Elgoibarko Udala

Familiakoek edo lagunek maiztasun handiarekin esaten diete Interneten denbora gutxiago igaro beharko luketela ikertuen % 29.2ri; gizonezkoen % 23ri, emakumezkoen % 35.8ri eta bitarrak ez diren pertsonen % 47.4ri.



Iturria: Elgoibarko Udala



Iturria: Elgoibarko Udala

4.1.8 Internetekiko mendekotasuna garatzeko arriskua

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) ezinbesteko tresna bihurtu dira eguneroko bizitzan, batez ere gazteenentzat. Interneten eta IKTen erabilerarekin lotutako arazoak, pertsonak konektatuta egon ahal izateko eguneroko ohiturak eta jarduerak alde batera uzten hasten direnean sortzen dira.

Drogei buruzko Plan Nazionalaren gomendioei jarraituz, egin berri den berrikuspen batek (Laconi, Rodgers eta Chabrol, 2014) Internetekiko adikzioa ebaluatzeko diseinatutako 45 tresna aurkitu zituen. Berrikuspen horrek adierazten duenez, Interneteko **Erabilera Konpultsiboko Eskala** (Meerkerk, Van Den Eijnden, Vermulst eta Garretsen, 2009) ondo baliozkotutako tresna bat da eta propietate psikometriko onak dituena; gainera, galdetegi laburra da, 5 puntuko eskalan neurtutako 14 item ditu (0, inoiz ez; 1, gutxitan; 2, batzuetan; 3, askotan; eta 4, oso maiz). Beraz, puntuazio altuena 56 puntukoa da, eta 28 puntu edo gehiago lortuz gero, Internet modu konpultsiboan erabiltzeko arriskua egongo litzateke.

Eskala hau ikerketa honetan inkestatutako pertsona guztiei egin zaie, eta horren ondorioz ateratako datuek diote, inkestatuen % 2,8k Internetekiko mendekotasuna izan dezaketela (23 pertsona), eta % 14.1ek edo 116 pertsonak IKTen gehiegizko erabilera egiten dutela, mendekotasun-arriskuarekin. Generoaren arabera, mendekotasun-arrisku handiena pertsona ez-bitarrek dute (% 15.8), eta, ondoren, emakumeek (% 3); azkenik, tasarik txikiena gizonak dute (%2.2). Adikzioa garatzeko arrisku handia duten pertsonen artean, emakumeen tasak pertsona ez-bitarren tasa gainditzen du (% 20 vs % 15.8), eta baita gizonena ere (% 8.4), hau da, % 138 gehiago.

29tik gorako puntuazioa kontuan hartzen badugu, ikus dezakegu 43 gizon, 85 emakume eta 6 pertsona ez-bitar daudela puntuazio hauetan, edo beste era baten esanda, gizonen % 10.6k, emakumeen % 23k eta bitarrak ez diren pertsonen % 31.6k, epe labur edo ertainean Internetekiko mendekotasuna izateko arrisku oso larria dute.


	GIZONAK	EMAKUMEAK	EZ BITARRAK	ZEHATZU GABE	TOTALA
0	49 – % 12.1	11 – % 3.0	3 – % 15.8	9 – % 28.1	72 – % 8.7
1 - 14	154 – % 38.0	117 – % 31.7	3 – % 15.8	9 – % 28.1	283 – % 34.4
15 - 28	159 – % 39.3	156 – % 42.3	7 – % 36.8	9 – % 28.1	331 – % 40.1
29 - 42	34 – % 8.4	74 – % 20.0	3 – % 15.8	5 – % 15.7	116 – % 14.1
43 - 56	9 – % 2.2	11 – % 3.0	3 – % 15.8	--	23 – % 2.8
GUZTIZKOAK	405 – % 100	369 – % 100	19 – % 100	32 – % 100	825 – % 100

Internetekiko adikzioa garatzeko arriskua (CIUS eskala) generoaren arabera

4.1.9 Internet bidezko jazarpena vs Jazarpena (Bullying-a)


Jazarpena jokabide oldarkorra edo bortitza da, non erasotzaileak etengabe erasotzen dion biktimari, beldurrarazteko, kontrolatzeko edo kaltea eragiteko asmoz. Bullying-a eskola-testuinguruan gertatzen den jazarpen-modu bat da, normalean ikaskideen artean gertatzen dena.

Azkenik, zein maiztasunekin sentitu diren jazarriak mehatxatuak edo Internet bidez jazarpena egin izan dioten jakin nahi genuen, honako emaitza hauekin: % 79 Inoiz ez eta % 21 Noizbait, honako banaketa honekin:




Iturria: Elgoibarko Udala

Generoari erreparatuz gero, pertsona ez-bitarretan jazarpena ohikoagoa dela ondorioztatu dezakegu, % 10.5ek sarritan bizi izan dutela onartu baitute, emakumezkoen (% 4.9) eta gizonezkoen (% 5.7) ehunekoen bikoitza. Hurrengo banaketa izanik:



Iturria: Elgoibarko Udala

Genero eta adinaren arabera, jazarpen maiztasun handiena pertsona ez-bitarren kasuan, 14 eta 15 urte bitartean gertatzen da, gizonen artean 17 urterekin eta emakumeen artean 14-16 urterekin.



4.2 BIZTANLERIA HELDUAREN KONTSUMOAK

Inguruko helduen kontsumoaren ikuspuntu argiagoa izateko, “2016ko Drogen Europako Txostena”, “2018ko Adinen arabera Txostena”, “Espainiako drogen kontsumoa” eta “2017ko Euskadi eta Droga” dokumentuetatik bildu ditugu datuak.

4.2.1 Alkoholaren kontsumoa

2018ko Estudes Txostenean oinarrituz, Espainian 15 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren % 91,2k bizitzan noizbait edari alkoholduak kontsumitu dituzte, argi islatuz alkohol kontsumoak Espainian duen hedadura.

Azken urteko alkohol-kontsumoa aztertuta, lautik hiru pertsonak (% 75,2) aurreko 12 hilabeteetan alkohola noizbait edan dutela adierazi dute. Hala ere kopuru horrek beherakada txiki bat izan du 2015eko datuekin alderatuta (% 77,6).

Azken hilabeteko alkohol kontsumoaren prebalentzia % 62,7koa izan da, 2015ekoarekin alderatuta antzeko mailetan mantenduz (% 62,1). Espainiako biztanleriaren % 7,4k alkohola ohituraz kontsumitzen duela adierazten dute.

Adina	15-24	25-34	35-44	45-54	55-64	Guztira
Inoiz ez	% 14.9	% 8.4	% 8.3	% 7.2	% 7.0	% 8.8
Bizitzan noizbait	% 85.1	% 91.6	% 91.7	% 92.8	% 93.0	% 91.2
Azken 12 hilabeteetan	% 76.0	% 78.1	% 75.8	% 75.0	% 71.5	% 75.2
Azken 30 egunetan	% 59.7	% 65.0	% 64.0	% 64.3	% 59.2	% 62.7
Egunero	% 1.3	% 3.3	% 5.3	% 9.6	% 16.5	% 7.4

Iturria: Espainiako alkohol eta drogen inkesta (Edades) 2017

Bilakaerari dagokionez, proportzio hori 1,9 puntu jaitsi da aurreko edizioan erregistratutakoarekin alderatuta (%9,3 2015 urtean); eta adierazle honek beheranzko joerarekin jarraitu du, 2011 urtean hasi eta 2017 urtean historiko osoaren balio minimora iritsiz.

Egunero alkohola kontsumitzen dutenen artean tasarik handiena 45 urtetik gorakoen artean ikusten da, batez ere gizonen artean.


Euskadin, Euskadiko Adikzioei buruzko Inkestaren arabera, 2017an 15-74 urte bitarteko ia euskal herritar guztiek (% 93.2) adierazi zuten bizitzan noizbait edari alkoholduen bat probatu dutela. Inkestatutakoen % 81.2k azken 12 hilabeteetan eta % 71,5ek azken 30 egunetan. Eguneroko kontsumoari dagokionez, inkestatutako emakumeen % 7k kontsumitzen zuten alkohola ohituraz eta gizonen artean, % 19.1ek.

Adina	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74	Guztira
Inoiz ez	% 17.3	% 7.0	% 4.6	% 8.5	% 5.3	% 4.8	% 5.0	% 10.2	% 6.8
Bizitzan noizbait	% 82.7	% 93.0	% 95.4	% 91.5	% 94.7	% 95.2	% 95.0	% 89.8	% 93.2
Azken 12 hilabeteetan	% 74.6	% 89.5	% 88.0	% 79.0	% 81.9	% 86.2	% 78.4	% 74.0	% 81.2
Azken 30 egunetan	% 55.5	% 81.2	% 74.7	% 70.0	% 72.2	% 76.2	% 70.2	% 66.6	% 71.5
Egunero	% 0.0	% 1.4	% 2.9	% 3.3	% 2.9	% 11.0	% 24.5	% 33.4	% 13.1

Iturria: Adikzioen inkesta Euskadi 2017

Alkohol kontsumoan adinaren arabera prebalentziek, azken urte eta hilabeteetan, antzeko patroia erakutsi zuten emakume eta gizonen artean, nahiz eta adin handieneko biztanleen artean sexuaren arabera aldeak ikusten ziren. Emakumeen kasuan, edari alkoholduen kontsumoak behera egiten zuen pixkanaka 50 urtetik aurrera. Gizonen kasuan, ordea, handitu egiten zen erretiro-adinetik aurrera. Edari alkoholduen eguneroko kontsumoa adin-talde helduenetan eta, batez ere, gizonen artean kontzentratzen zen.

2006tik 2012ra edari alkoholduen kontsumoaren prebalentzietan izandako beheranzko joeraren ondoren, 2017an gorakada bat izan da, bizitzan zeharreko kontsumoan, azken 12 hilabeteetan eta azken 30 egunetan egindako kontsumoan, bai gizon zein emakumeen artean.



Hala ere, eguneroko kontsumo maila historiko baxuetan mantentzen zen: emakumeen artean beheraka jarraitzen zuen eta, gizonen artean, azken bi edizioetan % 20tik behera mantentzen zen.

4.2.2 Tabakoaren kontsumoa

Alkohol kontsumoaren atzetik, tabakoa da Espainian, 15-64 urteko biztanleen artean, gehien kontsumitzen den substantzia psikoaktiboa, bizitzan noizbait kontsumitu dutenen %69,7ko kontsumo-prebalentziarekin. Bilakaerari dagokionez, 2007 urtetik ez zen % 70etik beherako prebalentziarik erregistratu, tabakoa noizbait erre zuten pertsonak % 68,5 baitziren.

Bizitzan noizbait erre duten kontsumitzaile kopurua ez bezala, azken 12 hilabeteetan izandako kontsumoak zertxobait gora egin du 2015eko datuekin alderatuta, % 40.2 izatetik % 40.9 izatera igo baita. Azken 30 egunetako denbora-tartean, badirudi datua egonkorra dela (% 38.8), % 38 eta % 39 artean mantendu baita azterlanaren azken hiru edizioetan.

Tabakoaren eguneroko kontsumoaren prebalentziari dagokionez, pertsonen % 34k egunero erre du tabakoa azken 30 egunetan. 2015 urtearen aldean, datua nabarmen handitu da, % 30.8tik % 34,0ra igaro baita, 2005 urtetik izandako daturik altuena lortuz eta 1997ko zifretara itzuliz.


Euskadiko tabako kontsumoa baxuagoa da Espainiakoarekin alderatuz gero. 2017ko datuen arabera, 15-74 urte bitarteko EAEko biztanleen erdiek baino gehiagok adierazi zuten tabakoa noizbait probatu zutela bizitzan (% 51,2), % 25,9k azken 12 hilabeteetan probatu zutela, % 25ek baino gutxiagok azken 30 egunetan (% 24,6) eta biztanleriaren **% 22,1ek egunero kontsumitzen zuen tabakoa**. Tabakoaren kontsumoa ez zen homogeneoa izan biztanleriaren artean, eta EAEan

desberdintasun nabarmenak agertu ziren sexuaren, adinaren eta ikasketa-mailaren arabera.

	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74	Guztira
Inoiz ez	%83.9	%66.8	%57.1	%51.2	%44.7	%44.2	%34.6	%10.2	%48.8
Bizitzan noizbait	%16.1	%33.2	%42.9	%48.8	%55.3	%55.8	%65.4	%44.0	%51.2
Azken 12 hilabetetan	%15.2	%24.2	%33.8	%28.4	%29.5	%29.7	%29.4	%11.1	%25.9
Azken 30 egunetan	%15.2	%21.7	%31.5	%27.0	%28.1	%28.2	%28.8	%10.1	%24.6
Egunero	%12.1	%16.1	%27.5	%22.8	%23.4	%26.9	%27.4	%10.1	%22.1
EMAKUMEAK	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74	Guztira
Inoiz ez	%85.3	%68.7	%59.1	%51.1	%41.7	%50.7	%44.7	%73.5	%54.4
Bizitzan noizbait	%14.7	%31.3	%40.9	%48.9	%58.3	%49.3	%55.3	%26.5	%45.6
Azken 12 hilabetetan	%14.7	%22.9	%30.5	%23.7	%30.2	%22.5	%23.6	%9.4	%22.5
Azken 30 egunetan	%14.7	%20.6	%29.1	%23.0	%28.3	%21.6	%23.1	%7.5	%21.3
Egunero	%11.0	%16.4	%27.6	%16.5	%23.9	%20.0	%21.7	%7.5	%18.7
GIZONAK	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74	Guztira
Inoiz ez	%82.5	%64.9	%55.2	%51.3	%47.8	%38.1	%24.0	%35.9	%43.0
Bizitzan noizbait	%17.5	%35.1	%44.8	%48.7	%52.2	%61.9	%76.0	%64.1	%57.0
Azken 12 hilabetetan	%15.6	%25.6	%36.8	%32.9	%28.7	%36.3	%35.4	%13.1	%29.3
Azken 30 egunetan	%15.6	%22.8	%33.7	%31.0	%27.8	%34.4	%34.8	%13.1	%28.1
Egunero	%13.3	%15.7	%27.4	%28.9	%22.9	%33.3	%33.4	%13.1	%25.6

Iturria: Adikzioen inkesta Euskadi 2017


Bilakaerari buruzko datuek oso emaitza positiboak erakusten zituzten, tabako kontsumoaren prebalentzia orokorrak murrizteko, 2008an hasitako, joerari eusten baitzitzaion. Izan ere, 2017an inkesta guztien prebalentzia txikiak erregistratu ziren, bai azken 12 hilabeteetako eta azken 30 egunetako kontsumoan, bai tabakoaren eguneroko kontsumoan, bai emakume zein gizonen kasuan.



Iturria: Adikzioen inkesta Euskadi 2017

4.2.3 Kalamuaren kontsumoa

Legez kanpoko substantziei dagokienez, kalamua da, 15-64 urteko biztanleen artean, Espainian kontsumo prebalentzia handiena duen droga ilegala. 2017 urtean, parte hartu dutenen %35,2k aitortu du bizitzan noizbait kalamua kontsumitu duela, eta proportzio horrek 2013an hasitako goranzko joerari eutsi dio, 2015ean erregistratutakoarekin alderatuta, 3,7 puntu igo baita (% 31,5), seriearen maximora iritsiz.




Iturria: Adikzioen inkesta Euskadi 2017

Azken urteko kontsumoari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu prebalentzia % 11koa dela, eta kontsumoa azken hilabetera mugatzen denean % 9,1koa dela. Bi denbora-tarteetan, prebalentziak zertxobait gora egin du 2015eko datuekin alderatuta (% 9,5 eta % 7,3, hurrenez hurren).

Biztanleriaren % 2,1ek onartzen du kalamua egunero kontsumitu duela azken hilabeteen, eta proportzio hori egonkor mantentzen da azken neurketetikiko.


Azken 12 hilabeteetan kalamuaren kontsumoaren prebalentzia, generoaren eta adinaren arabera aztertuz gero, substantzia horren kontsumoa gizonen artean emakumeen artean baino hedatuago dagoela antzematen da (% 15,4 eta % 6,6 hurrenez hurren), eta adin-tarte guztietan errepikatzen da egoera hori.

Adinaren arabera, kalamuaren kontsumoaren prebalentziak behera egiten du adinean aurrera egin ahala eta egoera hori gizonen zein emakumeen artean gertatzen da. Horrela, bi generoen prebalentzia handiena 15-24 urtekoen taldean ematen da: % 20,4k onartzen baitu azken urtean kalamua kontsumitu duela. Proportzio hori % 16,7ra jaisten da 25-34 urtekoen artean, % 10,1era 35-44 urtekoen artean eta % 7,8ra 45-54 urtekoen artean, eta % 5etik behera jaisten da 55-64 urtekoen artean (% 3,2).



Iturria: Espainako alhol eta drogen inkesta (Estudes) 2017

2017. urtean, kalamua da oraindik ere euskal biztanleriaren artean prebalentzia handiena duen legez kanpoko substantzia. 15-74 urteko hamar pertsonatatik lauk aitortzen dute noizbait kontsumitu dutela, % 8,6k azken urtean eta % 4,9k azken hilabeteen. Ia egunero kontsumitu dutela dioten biztanleak % 2 baino ez dira.



Iturria: Adikzioen inkesta Euskadi 2017

Aztertutako adierazleetan, kontsumoaren prebalentziak handiagoak dira gizonen artean emakumeen artean baino. Gainera, generoaren arabera aldea handitu egiten dira kontsumo-prebalentziak berriagoak diren heinean.

Euskadiko Adikzioei buruzko 2017ko Inkestaren arabera, adinari dagokionez, kalamuaren kontsumoa nagusi da gazteen artean, oso murriztua izanik eguneroko kontsumoa gaur egun 45 urtetik aurrerako pertsonen artean. Gizonen kasuan, egungo kontsumoaren puntu gorena (azken 30 egunetan) 20-29 urteko biztanleria-taldean dago, eta 30 urtetik aurrera behera egiten du pixkanaka. Emakumeen artean, kontsumoaren prebalentzia handiena 15-19 urteko eta 30-34 urteko adin-taldeetan ikusten da.

	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	%36.5	%56.1	%62.4	%57.5	%50.3	%40.8	%30.0	%8.4
Azken 12 hilabetetan	%24.0	%26.6	%25.5	%12.0	%7.8	%5.2	%3.7	%0.4
Azken 30 egunetan	%9.9	%16.1	%16.1	%7.1	%4.2	%2.4	%2.9	%0.4
*Egunero	%3.6	%4.1	%4.7	%2.9	%2.4	%1.1	%1.8	%0.0
EMAKUMEAK	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	%30.1	%41.1	%52.7	%51.8	%43.6	%29.7	%21.2	%4.8
Azken 12 hilabetetan	%19.7	%14.7	%19.0	%8.7	%3.7	%3.4	%2.6	%0.0
Azken 30 egunetan	%5.9	%7.7	%8.8	%4.5	%2.2	%0.8	%1.0	%0.0
*Egunero	%2.1	%0.9	%0.0	%2.2	%1.7	%0.0	%0.0	%0.0


GIZONAK	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	%43.2	%71.6	%71.2	%63.4	%57.0	%51.1	%39.2	%12.6
Azken 12 hilabetetan	%28.4	%38.9	%31.3	%15.3	%11.9	%6.9	%4.9	%0.9
Azken 30 egunetan	%13.9	%24.7	%22.7	%9.6	%6.2	%3.9	%4.9	%0.9
*Egunero	%5.3	%7.4	%9.0	%3.5	%3.0	%2.1	%3.6	%0.0

* Eguneroko kontsumoa: azken 30 egunetan egunero edo ia egunero (4-6 egun astean) egindako kontsumoa.
Iturria: Euskadiko Adikzioen Inkesta, 2017.

2017ko datuek agerian uzten dute kalamuaren kontsumoak gora egin duela; izan ere 2006tik ikusten zen beheranzko joera hautsi egin da. Bizitzan zeharreko kontsumoa % 28,3tik % 39ra igo da, bere maximo historikora iritsiz. Hau, neurri batean, gaztaroa kalamurik gabe bizi izan zuten belaunaldien desagerpen progresiboaren ondorio izan daiteke.

Duela gutxiko kontsumoa ere igo egin da, % 6,3tik % 8,6ra, eta neurri txikiagoan, egungo kontsumoa, % 4,3tik % 4,9ra. Era berean, eguneroko kontsumoaren prebalentzia nahiko egonkor mantendu da, 2012ko % 1,7tik 2017ko % 2ra

Azken kasu honetan, generoari dagokionez desberdintasun batzuk ikusten dira; izan ere, emakumeen artean ez da aldatu (% 0,7 eta % 0,8 artean mantendu da), baina gizonen artean % 2,4tik % 3,3ra igo da.



Iturria EAEko Adikzioen inkesta 2017

Taula: Kalamuaren prebalentzia orokorren garapena sexuaren arabera (%).

		1992	1994	1996	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012	2017
Guztira*	Noizbait	22,9	22,6	28,6	24,4	26,8	27,6	31,7	36,2	33,8	34,2	28,3	39,0
	Azk. 12 hil.	6,5	5,5	4,9	-	8,4	12,2	12,0	14,0	12,0	10,4	6,3	8,6
	Azk. 30 eg.	3,2	3,4	3,8	4,4	5,5	8,9	9,0	11,0	8,7	7,2	4,3	4,9
	Egunero	0,5	0,9	1,9	1,3	1,5	1,9	4,1	3,8	3,9	2,5	1,7	2,0
Emakume	Noizbait	11,6	12,0	15,3	15,0	18,0	18,9	20,5	25,6	22,9	25,2	21,0	31,1
	Azk. 12 hil.	2,6	1,6	1,4	-	4,1	7,1	5,8	8,6	6,6	6,7	3,6	5,6
	Azk. 30 eg.	0,7	0,9	1,2	1,8	2,6	4,6	3,8	6,4	3,9	4,0	2,1	2,4
	Egunero	0,1	0,2	0,3	0,4	0,4	0,6	1,0	1,8	1,3	1,0	0,8	0,7
Gizon	Noizbait	21,6	21,8	29,1	26,0	26,4	29,5	33,5	39,1	38,7	39,5	32,8	47,5
	Azk. 12 hil.	5,1	5,4	4,6	-	8,1	12,0	13,0	14,2	13,9	12,2	8,0	11,7
	Azk. 30 eg.	2,7	3,2	3,4	4,5	5,3	9,3	9,8	11,4	10,8	9,0	5,8	7,4
	Egunero	0,5	0,8	2,1	1,3	1,7	2,4	4,9	4,3	5,0	3,3	2,4	3,3

* Kalamuaren eguneroko kontsumoa azken 30 egunetan gutxienez astean 4 egunetan egindakoa da.
Iturria: adikzioei buruzko inkesta Euskadin, 2017 eta EINen 2017ko urtarilaren 1eko errolda demografikoa.

4.2.4 Beste droga batzuen kontsumoa

Estatu mailan, errezetadun edo errezeta gabeko hipnolasaigarriak dira gehien kontsumitzen diren substantziak; izan ere, parte hartu dutenen % 20,8k kontsumitu dute noizbait bere bizitzan, bi puntu igoz 2015 urtearekin alderatuz (% 18,7). Hala ere, azken urteko, hilabeteko eta eguneroko kontsumoak jaitsiera txiki bat izan du aurreko urteekin alderatuta, eta horrek kontsumoaren prebalentziaren beheranzko joera adierazten du.

Hala ere, Espainiako, 15-64 urte bitarteko biztanleen % 7,5ek hipnolasaigarriak kontsumitu dituzte azken hilabeteen, eta % 5,9k egunero kontsumitzen dituzte. Generoaren arabera, kontsumoa askoz ere zabalduagoa dago emakumeen artean: 15-64 urte bitarteko emakumeen laurdenak baino gehiagok (% 25,6) hipnolasaigarriak kontsumitu dituzte bizitzan noizbait errezetarekin edo errezetarik gabe.

		15-64 urte bitartean			15-34 urte bitartean			35-64 urte bitartean		
		Guztira	Gizon	Emak	Guzt.	Gizon	Emak	Guzt.	Gizon	Emak.
Guztira*	Noizbait	20,8	15,9	25,6	12,4	10,3	14,5	25,0	18,8	31,1
	Azk. 12 hil.	11,1	8,1	14,1	6,5	5,3	7,7	13,4	9,6	17,2
	Azk. 30 eg.	7,5	5,4	9,7	3,4	2,8	4,0	9,6	6,7	12,4
	Egunero	5,9	4,0	7,9	2,4	2,0	2,9	7,7	5,1	10,4

Iturria: OEDA Espainiako alkohol eta drogen inkesta, EDADES 2017

Adinaren arabera, lehen ere aipatu den substantzia honek, pisu handiagoa du 35 urtetik gorako pertsonen artean: 35-64 urte bitarteko biztanleria orokorraren % 25ek hipnolasaigarriak kontsumitu ditu bizitzan noizbait errezetarekin edo gabe (zehazki adin-tarte horretako emakumeen % 31,1ek).

Gainerako denbora-tarteetako kontsumo-prebalentzien sexuaren eta adinaren arabera analisiak oso antzeko datuak ematen ditu: prebalentzia handiagoak emakumeen artean eta adin-tarte nagusienerako taldean (35-64 urte).

Alkoholaren eta tabakoaren ondoren, EAEan gehien kontsumitzen den substantzia psikofarmakoak dira, kalamu kontsumoan baino tasa handiagoekin. Biztanleriaren %15,4k azken 12 hilabeteetan kontsumitu ditu, emakumeen gailentze nabarmenarekin; izan ere, emakumeen kontsumoa ia bikoiztu egin da, (% 20.1) gizonenarekin alderatuz (% 11.1). Hona hemen adinaren eta sexuaren arabera banaketa:

	15 -74 urte			15 -34 urte			35 -64 urte		
	Guztira	Gizon	Emak	Guztira	Gizon	Emak	Guztira	Gizon	Emak
Noizbait	28,7	20,8	36,5	14,2	--	--	33,4	--	--
Azk. 12 hilabete	15,4	11,0	19,7	6,0	--	--	18,3	--	--
Azk. 30 egun	10,4	8,0	12,9	2,5	--	--	13,0	--	--

Iturria: EAEko Adikzioen inkesta 2017


Legez kanpoko gainerako substantziek askoz presentzia txikiagoa dute Euskadin, biztanleriaren % 1,9k kontsumitu baititu, honela banatuta:

Taula: Substantzia illegalen kontsumo prebalentzia orokorrak. 2017 (%)

	Bizitzan noizbait	Azken 12 hilab.	Azken 30 eg.
Speeda, anfetaminak	8,5	1,0	0,4
MDMA eta antzeko, estasia	3,6	0,4	0,1
Azidoa, LSD	3,2	0,1	0,0
Kokaina hautsa	9,0	1,4	0,4
Oinarria, crack	0,4	0,0	0,0
Heroina	0,6	0,0	0,0
Beste opiazeo batzuk	0,5	0,1	0,1
Arnasgarriak	0,4	0,0	0,0
Perretxiko haluzinogenoak	3,5	0,1	0,0
Ketamina	0,6	0,0	0,0
Beste batzuk	0,0	0,0	0,0

Iturria: EAEko Adikzioen inkesta 2017

Kokaina hautsa % 9k kontsumitu izan dute noizbait bizitzan, eta zifra hori % 1,4ra jaitsi da azken 12 hilabeteetan, eta % 0,4ra azken 30 egunetan. Ondoren, speeda- anfetaminak daude, % 8,5ek noizbait, %1ek azken urtean eta % 0,4k azken hilabetean kontsumitu dituzte. Estasia, perretxiko haluzinogenoak eta LSD-azidoa bizitzan noizbait probatu dituztenen ehunekoa %3,6tik % 3,2ra jaitsi da eta hauen ohiko kontsumoak ia desagertu egin dira azken hileko kontsumoei erreparatzen badiegu.



Iturria: EAEko Adikzioen inkesta 2017

Noiz behinkako kontsumoa generoaren eta adin-taldearen arabera aztertzen badugu, kokainaren kontsumoa batez ere gizonezkoena dela ikusiko dugu. Gizonezkoen % 13,3, emakumezkoen % 4,8 alderatuz, hau da, ia hiru aldiz txikiagoa.

Taula: Bizitzan noizbait lege kanpoko beste substantzia batzuk kontsumitzearen prebalentzia, sexuaren eta adin-taldearen arabera. 2017 (%)


	Generoa		Adin-tartea		Guztira
	Gizonak	Emakumeak	15-34	35-74	
Speeda, anfetaminak	12,4	4,6	9,4	8,2	8,5
MDMA eta antzeko, estasia	5,9	1,4	5,1	3,2	3,6
Azidoa, LSD	4,9	1,6	1,8	3,7	3,2
Kokaina hautsa	13,3	4,8	9,6	8,9	9,0
Oinarria, crack	0,6	0,2	0,3	0,5	0,4
Heroina	0,8	0,5	0,1	0,8	0,6
Beste opiazeo batzuk	0,5	0,4	0,0	0,6	0,5
Arnasgarriak	0,6	0,2	0,2	0,5	0,4
Perretxiko haluzinogenoak	4,9	2,1	5,2	2,9	3,5
Ketamina	1,0	0,2	1,9	0,2	0,6
Beste batzuk	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0

Iturria: EAEko Adikzioen inkesta 2017


Legez kanpoko gainerako substantziekin (estasia, speeda-a, LSD-a, ketamina edo perretxiko haluzinogenoak) antzeko zerbait gertatzen da, gizonek bikoiztu edo hirukoiztu egiten baitituzte kontsumoak emakumeen aldean. Opiazeoen kasuan bakarrik, heroina kasu, zifra baxuetan bada ere, emakume eta gizonen kontsumoak hurbildu egiten dira, nahiz eta gizonetzkoetan nagusi izaten jarraitzen duten.

4.2.5 Substantziarik gabeko adikzioak

Euskal herritarren % 85,1ek lanegunetan (astelehenetik ostegunera) eta asteburuetan (ostiraletik igandera) erabili ohi du Internet, eta gizonak dira nagusi honen erabileran (% 86.1 gizon; % 84.1 emakume), nahiz eta azken hilabeteetan erabilera zertxobait jaitsi den (% 83).



Iturria: EAEko Adikzioen inkesta 2017



Iturria: EAEko Adikzioen inkesta 2017.

Interneten erabilera arazotsuak, Oman-en testaren neurketetan oinarrituz, erakusten du EAEko biztanleen % 4,3k Internetekiko mendekotasuna izateko arriskua duela, eta % 0,7k egungo erabilera arazotsua.

Taula: Biztanleriaren banaketa Internet erabiltzeko arrisku-mailaren arabera, Oman-en testean oinarrituta. 2017 (%)


	Zenbakia	Populazio osoaren banaketa	Internet azken 12 hilabetetan erabili duten biztanleen arteko banaketa
Ez da Internet erabiltzailea	247564	14,9	-
Arazo gabe (0-3)	1330797	80,1	95,0
Arriskuarekin (4-6)	72 20	4,3	4,3
Erabilera arazotsua (7-9)	11 84	0,7	0,7
Guztira	1662224	100,0	100,0

Oharra: Erabilitako Internet-adikzioaren testa, Ormanek 1996an diseinatu, 9 itemez osatutako tresna bat da, lortutako puntuazioaren arabera hiru erabiltzaile-talde bereizteko aukera ematen du.

Iturria: EAEko Adikzioen inkesta 2017.

2012 eta 2017 artean, Internet erabiltzen duten pertsonen proportzioa % 72,9tik % 85.1era igo da 2012an. Erabilera arriskutsu edo arazotsuak gora egin du % 3tik % 5era, ehuneko handiagoa izanik emakumeen artean.

INTERNETEN GEHIEGIZKO ERABILERA ETA ARRISKU ERABILERAREN PREBALENTZIAREN GARAPENA ORMAN-EN TESTAREN ARABERA (%) EAE 2012-2017




Iturria EAEko Adikzioen inkesta 2017

Azken urtean hainbat joko desberdinen erabilerari dagokionez, EAEko biztanleen % 68.9k loterian, kinieletan, primitiban edo bonolotoan jokatu dute, % 7,4k kirol-apustuak egin dituzte, % 3k karta-jokoak erabili dituzte, % 2,8k txanpon-makinetan jokatu dute eta % 2k baino gutxiagok kasino-jokoetan, bingoetan edo bestelakoetan.

Taula: Azken 12 hilabeteetan joko-mota desberdinak jokatzeko maiztasuna. 2017 (%)

	Behin ere ez	Astean behin baino gutxiago	Astean behin edo gehiago	Ez daki	Guztira
Loteria, kiniela, primitiba, bono-lotoa	31,1	44,4	24,3	0,2	100,0
Karta-jokoak	97,0	1,9	1,1	0,1	100,0
Kirol apustuak (kinielak ez)	92,6	5,6	1,7	0,1	100,0
Txanpon makinak	97,2	2,1	0,6	0,1	100,0
Kasino-jokoak (erruleta, Black Jack...)	98,8	1,1	0,1	0,1	100,0
Bingoa	98,7	1,1	0,1	0,2	100,0
Beste batzuk	99,8	0,1	0,1	0,1	100,0

Iturria: EAEko Adikzioen inkesta 2017.



Iturria EAEko Adikzioen inkesta 2017


Genero eta adinaren arabera, gizonak emakumeek baino ia 10 puntu gehiago jokatzen dute loteria-, kiniela-, primitiba-, eta bonoloto-jokoetan, gutxienez astean behin, gainerako joko-motetan bezala.

Adin-taldeei erreparatuz gero, 35-74 urtekoek nabarmen gainditzen dituzte 15-34 urtekoak loteria, kiniela, primitiba edo bonoloto bezalako jokoetan, izan ere 35-74 urte bitartekoen % 29,2k gutxienez astean behin jokatzen dute eta 15-34 urte bitartekoen artean % 8,9k baino ez. Gainerako jokoetan ordea, kontrakoa gertatzen da, pertsona gazteenen %3,6k kirol-apustuak egiten baitituzte, astean behin gutxienez.

Taula: Azken 12 hilabetetan joko-mota desberdinak jokatzeko maiztasuna, generoaren eta adinaren arabera.2017 (%)

	Generoa		Adin-tartea		Guztira
	Gizonak	Emakumeak	15-34	35-74	
Azken 12 hilabetetan jokatu					
Loteria, kiniela, primitiba, bono-lotoa	68,1	69,3	41,2	77,5	68,7
Karta-jokoak	4,1	1,7	4,1	2,5	2,9
Kirol apustuak (kinielak ez)	13,8	0,9	16,4	4,4	7,3
Txanpon makinak	4,8	0,7	4,9	2,0	2,7
Kasino-jokoak (erruleta, Black Jack...)	2,0	0,3	4,3	0,2	1,2
Bingoa	1,0	1,3	2,6	0,7	1,1
Beste batzuk	0,3	0,0	0,4	0,1	0,2
Azken 12 hilabetetan jokatu, asteroko maiztasunarekin					
Loteria, kiniela, primitiba, bono-lotoa	28,8	19,9	8,9	29,2	24,3
Karta-jokoak	1,5	0,7	0,6	1,2	1,1
Kirol apustuak (kinielak ez)	3,3	0,2	3,6	1,1	1,7
Txanpon makinak	1,2	0,0	1,1	0,4	0,6
Kasino-jokoak (erruleta, Black Jack...)	0,2	0,0	0,5	0,0	0,1
Bingoa	0,0	0,1	0,0	0,1	0,1
Beste batzuk	0,1	0,0	0,0	0,1	0,1

Iturria: EAEko Adikzioen inkesta 2017.



Iturria EAEko Adikzioen inkesta 2017

2012-2017 urteetan zehar, Euskal Autonomia Erkidegoan, jokoak izandako bilakaerak agerian utzi du karta-joko eta txanpon-makinen erabilera pixka bat igo dela eta kirol-apustuek gorakada nabarmena izan dutela (% 750), izan ere 2012ko % 0,2tik gaur egungo % 1,7ra igo baita hauen erabilera tasa.

5 KOMUNITATEAK ADIKZIOEN INGURUAN DUEN PERTZEPZIOA

Elgoibarko adikzioen ikerketa kuantitatiboari errealitatearen diagnostikoan oinarritutako azterketa kualitatibo bat gehitu behar zaio, komunitateak eta herritarrek beren udalerriko adikzioei buruz duten ikuspegia aztertuz.

Eredu parte-hartzaileak aukera ematen du inplikaturako herritarren sektore guztien iritzia jasotzeko eta, aldi berean, hasieratik herritarrek proiektuaren parte izanda, ondorengo diagnostiko-, plangintza- eta ebaluazio-jardueretan parte-hartzearen jarraipena egiten laguntzen du.

Herritarren eta udalerriko hainbat sektoretako ordezkarien informazioa biltzeko asmoz, komunitatearen partaidetzaren bidezko diagnostikoa bi eredu parte-hartzaileekin egin zen: alde tekniko eta politikoko hainbat udal-eremutako **pertsona esanguratsuen eztabaida-taldeak**: udaltzaingoa, hezkuntza, osasuna eta abar, eta udalaren web-orriaren bidezko **herritarren parte-hartzea**.

5.1 PERTSONA ESANGURATSUEKIN EZTABAIDA-TALDEAK

Eztabaida-taldeek bidezko parte hartzea aurrera eramateko, saio edo tailer parte-hartzaileak antolatu ziren, eta biztanleriaren sektore desberdinetan adierazgarritasun, ordezkaritza edo lidergoa duten pertsonak gonbidatu ziren. **Guztira 61 pertsonak** parte hartu zuten, lau taldetan banatuta.

1. taldea udal-zerbitzuetako langileek eta kargu politikoek osatu zuten, besteak beste: sail desberdinetako zinegotziek, udal teknikari eta administrariak, liburuzainak, gizarte-langileak, kirol-patronatuko arduradunak eta administrariak, udaltzaingoko ordezkariak, kaleko hezitzaileak, senideak eta alkateak. Guztira 33 pertsona bertaratu ziren; horietatik % 69,70 (23 pertsona) emakumeak izan ziren eta % 30,30 (10 pertsona) gizonak.

2. taldea ostalaritzako, saltoki txikietako eta osasun-arloko hainbat ordezkariak osatzen dute, hala nola: Elgoibarko Lehen Mailako Atentzioko Unitateko Buruak, pediatriak, pediatriako arduradunak eta erizainak, Osasun Publikoko ordezkariak, Osakidetza prebentzio komunitarioko teknikariak. Guztira 9 pertsonak parte hartu zuten; horietatik % 66,67 (6 pertsona) emakumeak izan ziren eta % 33,33 (3 pertsona) gizonak.

3. taldea hezkuntza arloko ordezkariak osatu zuten. Ikastetxeetako eta IGEetako langileak: Herri Eskolakoek, Kalamuakoek, Arreiturrekoek, Elgoibar Institutukoek, IMHkoek, Mekakoek eta Ikastolakoek. Talde horretan 10 parte-hartzaile izan ziren guztira, % 80 (8 pertsona) emakumeak eta % 20 (2 pertsona) gizonak.

Elkartez eta herritarrez osatutako 4. talde irekian, Pentsiodunen Etxeko, Gurutze Gorriko ordezkariak eta sei herritar izan ziren. Horietatik, % 77,7 emakumeak dira eta % 22,22 (bi pertsona) gizonak.

Ordezkaritza talde bakoitzarekin egindako foroak bi ordu iraun zuten; eztabaida-talde bakoitza azpitaldetan banatu ondoren, adikzioen prebentzioarekin lotutako lau galderari buruzko eztabaida egin zen, ondoren talde handian azaldu ziren erantzunak eta Tokiko Planari buruzko ikuspegiak bateratu ziren.

Honako gai hauek eztabaidatu ziren:

- ✓ **Zeintzuk dira Elgoibarko adikzio-arazo nagusiak?**
- ✓ **Zuen ustez, zeintzuk dira mendekotasun horiek gertatzeko arrazoi nagusiak?**
- ✓ **Zuen ustez, zein alderdi landu beharko lirateke lehentasunez prebentzioko esku-hartzeen artetik?**
- ✓ **Udalak adikzioei aurre egiteko dituen baliabideetatik, zein indartu behar dira?**

5.1.1 MENDEKOTASUNA ERAGITEN DUTEN SUBSTANTZIEN ONDORIO NAGUSIAK

Hauek izan dira Elgoibarko taldeek identifikatu dituzten adikzio-arazo nagusiak:

- 1. Alkohola, kalamua, mugikorrak, sare sozialak eta jokoa (Internet bidezko edo Internetetik kanpoko apustuak)** dira gehien aipatzen diren substantzia eta jokabide-adikzioak. Adin-tarte guztietan errepikatzen dira, baina **droga sintetikoak** helduek kontsumitzen dituzte gehienbat.
- 2.** Hala ere, **adinaren eta sexuaren arabera joera desberdinak daude. Adin tarte batetik bestera jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa dago**, aurreko tarteetan kontsumitutakoari elementu berriak gehitzen zaizkiolako.

ADINA	SUBSTANTZIEN KONTSUMOA ETA PORTAERAK ADINAREN ARABERA
< 12 urte	Mugikorrak eta bideo-jokoak
12-16 urte	Mugikorreia eta bideo-jokoei alkohola, kalamua* tabakoa eta sare sozialak gehitzen zaizkie.
16-20 urte	Mugikorreia, bideo-jokoei, alkoholari, kalamuari, tabakoari eta sare sozialei speeda eta kokaina gehitzen zaizkie.
20-30 urte	Mugikorreia, bideo-jokoei, alkoholari, kalamuari, tabakoari, sare sozialei, speedari eta kokainari ketamina, GHB eta apustuak gehitzen zaizkie.

* 1. taldearen arabera, kontsumitutako substantziaren toxikotasun-maila da arazo nagusietako bat; zehazki, kalamua oso aizunduta dagoela adierazten du talde honek.

SEXUA	SUBSTANTZIEN KONTSUMOA ETA JOKABIDEAK SEXUAREN ARABERA
GIZONAK	Kalamua, legez kanpoko beste substantzia batzuk, bideo-jokoak eta jokia, batez ere apustuak eta pokerra.
EMAKUMEAK	Tabakoa eta sare sozialak
PERTSONA EZ BITARRAK	Tabakoa

* Alkoholaren kasuan bakarrik ez da egiten generoaren arabera desberdintasuna.

3. Maiztasun gutxiagorekin bada ere, alde batetik, **familia permisiboegiak eta familia desegituratuetako kideak aipatzen dira**, eta, bestetik, **kuadrilaren eraginez kontsumitzen dutenak, "desberdinak" ez izateko**. (* 1. taldeak aurreko guztiari talde bat gehitzen dio, Hego Ameriketako jatorria duten pertsonak. Bereziki, pertsona helduak.)

Kontsumoak non **eta zein unetan** kontzentratzen diren identifikatzerakoan, aldagai hau adinaren arabera aldakorra dela ondorioztatu da:

❖ **Gazteen** kasuan (12-30 urte): **tabernak, gazteen lokalak eta ikastetxeetatik gertu dauden lekuak** (Titanik, excalestic, Basarte, IMH eta autobidearen beheko aldea). Gazteen lokalak, zehazki, kalamuaren kontsumoarekin lotzen dituzte. Momentuei dagokienez, astelehenetik ostiralera **tabakoa eta kalamua** kontsumitzen dira batez ere; asteburuetan, berriz, lehen aipatutako bi substantziei **alkohola eta droga sintetikoak** gehitzen zaizkie.

Beraz, espazio bakoitzaren kontsumoa asteko une zehatzekin eta substantzia zehatzekin lotzen da, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala.

	GAZTEEN LOKALAK	IKASTETXEETATIK GERTUKO UNEAK	TABERNAK
NOIZ?	Bai astean eta bai asteburuetan	Bai astean eta bai asteburuetan	Asteburuak
ZER?	Tabakoa eta kalamua	- Tabakoa eta kalamua asteen zehar - Asteburuetan alkohola "botiloia"	Alkohola

* Droga sintetikoen kontsumoa asteburukoa dela aipatzen da, baina ez da lekua zehazten

❖ **Alkohola da helduen artean** gehien kontsumitzen den substantzia, eta sozializazio-funtzioa ematen zaio. Ostegunetik larunbatera bitartean kontsumitzen da, biak barne, eta tabernak, elkarte gastronomikoak eta parkeen inguruak dira erabilitako lekuak. Parkeetan egiten den kontsumoa adingabeak zaintzen diren bitartean kontsumitu ahal izateko egiten dela aipatzen da.

Lehen aipatutako guneak eta espazioak ohikoenak izan arren, eztabaida-taldeek gehitu dute alkoholaren, tabakoaren eta kalamuaren kontsumoa, gazteen zein helduen artean, normalizatuta dagoela edozein unetan eta herriko edozein lekutan.

Hain zuzen ere, taldeek uste dute kontsumoaren normalizazio horrek alkoholaren eta kalamuaren **arriskuak ez detektatzea** dakarrela ondorio bezala, eta, beraz, **efektu negatiboen garrantzia minimizatu egiten dela** gizartean. Hala ere, gazteek alkohola edo bestelako substantziak kontsumitzen ari direnean zerbait esaten edo aurpegiratzen zaienean helduarekiko duten agresibitate fisikoa eta ahozkoa hautematen dute arrisku bezala.

5.1.2 MENDEKOTASUNAK GARATZEKO ARRAZOI NAGUSIAK

Adikzioak garatzeko arrazoi nagusiak bat baino gehiago dira, baina eztabaida-taldeek **ARRISKU-FAKTOREAK** lau bloketan bereizi dituzte:

1. **Ezaugarri pertsonalekin lotutakoak.**
2. **Eskuragarritasun eta normalizazioarekin lotutakoak.**
3. **Familia-gatazkak eta harremanekin lotutakoak**
4. **Aisia eta prestakuntza.**

Jarraian, arrisku-faktore bakoitza puntuz puntu azaltzen da:

1. Ezaugarri pertsonalekin lotutako arrisku-faktoreak:

- ✓ **Kalteberatasuna eta lidergo-izaera:** pertsona kalteberak eta eraginberak, eta kontrako aldean, estatusari eusteko behar den guztia egiteko prest dauden liderrak. Adina ere arrisku-faktorea da
- ✓ **Bakardadea.** Bakarrik dauden edo bakarrik sentitzen diren pertsonak; batez ere pertsona helduak.
- ✓ **Zailtasun emozionalak:** autoestimu txikia, segurtasun eza, estresa eta antsietatea kudeatzeko zailtasunak dituzten pertsonak.
- ✓ **Pertsona batek substantziari ematen dion funtzionaltasuna:** pertsona batek bere gaitasun emozionalekin izan ditzakeen zailtasunak direla eta, substantziak pertsonaren gabeziak betetzeko kontsumitzen dira; adibidez, alkohola lotsa galtzeko kontsumitzen da, eta kalamua lasaitzeko. Hori helduen artean ere gertatzen da, botikak askotan hartzen baitira antsietate-egoerak murrizteko.

2. Eskuragarritasun eta normalizazioarekin lotutako arrisku faktoreak

- ✓ **Normaltasuna eta alkohol-kontsumoaren gehiegizko onarpena.** Mezuen inkoherentzia, oso gertuko eragin berak erreferenteak, adibidez, kontsumitzaileak diren eta substantzia horren ondorioak gutxiesten dituzten gurasoak. Kultura-ohiturek kontsumoa justifikatzen eta sustatzen dute.

- ✓ **Eskuragarritasuna.** Gazteek oso eskura dute edozein droga, alkohola bereziki, eta ez da araudiak ezarritakoa betearazten; horren adibide da supermerkatuetan adingabeei alkohola saltzen zaiela. Era berean, botiloia-oren ondorioa dakar horrek, eta beste arrisku bat dakar baita ere: kantitate handiagoan, era kontzentratuagoan eta baldintza okerragoetan kontsumitzea.
- ✓ **Publizitatea.** Jokabide-adikzioetan, eskuragarritasunaz gain (apustu-makinak, Internet, etab.), irratan, telebistan eta futbol-partidetan adikzio-jokabideak sustatzen dituzten iragarkiak daude uneoro.

3. Familia-gatazkak eta harremanekin lotutako arrisku faktoreak

- ✓ **Familia barruko gatazkak:** arazo ekonomikoak, gaixotasunak. Familia-gatazkek erraztu egiten dute pertsonak kontsumitzeko duen joera.
- ✓ **Familiaren eta nerabearen arteko komunikazio eta atxikimendu falta**
- ✓ **Hezteko ereduak:** Familia permisiboegiak

4. Aisia eta prestakuntzarekin lotutako arrisku faktoreak:

- ✓ **Koadrilako ohiturak.** Kontsumitzaileak badaude, kontsumitzen ez dutenen gaineko talde-presioa egon ohi da.
- ✓ **Gazteen lokalak.** Kontsumorako guneak izaten dira, pribatutasuna eskaintzen dute eta, horregatik, helduen kontrola ekiditeko aukera ematen dute.
- ✓ **Aisialdiko eta denbora libreko aukera gutxi izateak edo eskaintzarik ez egoteak** erraztu egiten du gazteak lokaletan berriz elkartzea.
- ✓ **Errendimendu akademiko txikia** edo eskola-porrota.
- ✓ **Esparru desberdinen arteko sare-lan eza;** zehazki, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazio eza.

5. Era isolatuan aipatu diren beste arrisku batzuk:

- ✓ Migratzaileak, inklusioa modu desegokian egitea, ghettoak.
- ✓ Nerabeek mugitzen duten diru kantitate handia.

5.1.3 LEHENTASUNEZ EGIN BEHARREKO PREBENTZIO ESKU-HARTZEAK

Aipatutako arrisku-faktoreak txikitzeko, **babes-faktoreak indartzeko lehentasunez landu behar diren esku-hartzeak eta proposamenak landu ziren**. Taldeen ustez, **lehentasunezkoak izan behar dute batez ere hezkuntzarekin eta komunitatearekin** lotutako prebentzio esku-hartzeak. Osasun-arloarekin lotutakoak ez dira aurrekoak bezala aho bateko proposamenak izan, ekarpenak G2koak izan baitira soilik.

5.1.3.1 HEZKUNTZA-EREMURAKO LEHENTASUNAK ETA PROPOSAMENAK:

- **Ikastetxean, familian eta udal mailan aldi berean hezkuntza-lan sakona egitea**. Programa eta hitzaldi gehiago.
- **Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin hezkuntza emozionalarekin lotutako edukiak** lantzea, bereziki autoestimu osasungarria eta taldearen presioari aurre egiteko beharrezkoak diren gaitasunak.
- Aurre-nerabeak eta nerabeak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik Batxilergora:
- Erabileran hezteak, eta ez gehiegizko erabileran, kontsumo arduratsua sustatuz eta **arriskuen murrizketa** landuz.
- **Informazioaren edo gehiegizko informazioaren kudeaketa eta normalizazioa** lantzea.
- **Trebetasun sozio-emozionaletan trebatzeko saioak**: nerabeak ahalduntzea autoestimu osasungarriaren bidez, eta bereziki kontsumitzen ez duten gazteak ahalduntzea, taldearen presioari aurre egiten jarrai dezaten. Bestalde, beharrezkoa da emozioak genero-ikuspegitik kudeatzea.

- Datu errealetan eta adikzio bat duten edo pairatu izan duten pertsonen, euren senitartekoen edota istripu bat izan dute pertsonen testigantzan edo esperientzietan oinarritutako informazio eta prestakuntza saioak, **Lehen pertsonako kontakizunak**.
- **Familien ahalduntzea**, gurasotasun positiboaren saioen bidez. Koherentzia falta dago esaten denaren eta egiten denaren artean; familiak eredu izan beharko luke haurrentzat eta gazteentzat, haien jokabidea, batzuetan, ez baita osasungarriena.
- **Seme-alabak hezten lagunduko duten jarraibideak ematea familiei** (mugak nola jarri, komunikazio-estrategia eraginkorrak, etab.), bai eta teknologien erabilerari buruzko prestakuntza ematea eta teknologien gehiegizko erabilerak seme-alabengan izan dezakeen eraginari buruz sentsibilizatzea ere.

5.1.3.2 EREMU KOMUNITARIOAKO LEHENTASUNAK ETA PROPOSAMENAK

Arlo honetan, eztabaida-taldeek lehentasuna **araudia betearazteko neurriak izan dira**.

- **Indarrean dagoen araudia eta udal-ordenantzak betearaztea**, adibidez, isuna jartzea adingabeei alkohola saltzen dieten saltokiei edo herritarrek modu anonimoan salatzeko aukera izatea.
- Araudi eraginkorrak eta horien inguruko prestakuntza bultzatzea.
- **Gaueko ikuskapenak** egitea asteburuetan eta jaietan.
- Herriko taberna guztietan kea detektatzeko gailuak instalatzea.
- Alkoholaren eta tabakoaren kontsumoaren kontrol handiagoa egitea eta apustu-etxeen eta jokoaren publizitatea murriztea.
- Udalak **prebentzio eta informazio guneak izatea**, eta espazio horietan zein hezkuntza eremutik jasotako informazioa, bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleen artean zabaltzea. Ildo horretan, **bitarrak ez diren pertsonen informazioa eskuratzeko duten sarbidea hobetzea**.
- Udalerriko biztanleak komunitateko kide direla sentiaraztea eta aisialdiko udal-eskaintza zabala eskaintzea: kultura, kirola...

5.1.3.3 OSASUN-ARLOKO LEHENTASUNAK ETA PROPOSAMENAK

- Osakidetzako **OMZ** (Osasun Mentaleko Zentroa) **arloa hobetzea eta indartzea**, estigmatizatuta baitago.
- **Osasun-langileei** adikzioen arriskuak identifikatzen lagunduko dieten **prestakuntza ematea**.

5.1.4 UDALAK SUSTATU BEHARREKO PREBENTZIO-BALIABIDEAK

Azken atalari dagokionez, taldeen iritziz **Udalak honako baliabide hauek indartu behar ditu adikzioei aurre egiteko:**

- ✓ **AISIA ETA DENBORA LIBREA**
- ✓ **FAMILIEI ETA IKASLEEI ZUZENDUTAKO TAILERRAK**
- ✓ **HERRITARREI BALIABIDEAK EZAGUTARAZTEA ETA HURBILTzea**

5.1.4.1 AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA SUSTATZEA:

- **Aisialdiko eta denbora libreko eskaintza handitzea**, batez ere asteburuetan, eta ekintzak gazteekin adostu ahal izatea; gazteak aktiboki inplikatzeko aisialdirako aukera berriak eta sortzaileak bilatzen.
- Aisialdiko eskaintzak **gazte guztientzako eskuragarri** egotea, egoera ekonomikoa sarbiderako oztopo ez izatea.
- **Gaueko jarduerak kudeatzea aisialdiko uneetan.**
- **Gaztelekuko eskaintza modu berritzailean egokitzea.** Batez ere, asteburuetan, 15 eta 18 urte bitarteko adin-tartean eragiteko bideak indartuz (Gaztelekuko erabiltzaileen adin-tarte barruan daudenak, baina zerbitzua aprobetxatzen ez dutenak). Bestalde, eremu horretako esku-hartzeak indartu behar dira.
- **Kale-hezitzaileen presentzia indartzea** asteburuetan.
- **Kalean egiten diren esku-hartze programak indartzea;** prebentzio alkoholemiak, testing-a eta botiltzarra bezalako programei jarraipena ematea, herriko jaietan bakarrik egiten diren ekintza puntualak ez izatea.

- **Alkohol eta kalamu kontsumoaren kontrolak indartzea**, bai adinekoei eta baita adingabekoentzat. Arauak betearaztea eta isunak jartzea, adibidez, parkeetan alkohola edaten dutenei.
- **Ostalaritza langileentzako informazio eta prestakuntza-programak.**

5.1.4.2 FAMILIEI ETA IKASLEEI ZUZENDUTAKO TAILERRAK SUSTATZEA:

- **Ikastetxeetan egiten diren prebentzio-programak indartzea**; giden, tailerren eskaintza handitzea eta horiei jarraipena ematea, saio puntualak izan ez daitezen.
- **Familiak ahalduntzea** gurasoen saioetara joan daitezen.
- **Alkohola eta sexualitatea bezalako gaiak generoaren arabera lantzea.**


5.1.4.3 HERRITARREI BALIABIDEAK EZAGUTARAZTEA ETA HURBILTZEA:

- **Udalak prebentzioaren arloan egiten duen lan guztiaren berri ematea**; Udalak gidoi argia argitara dezala eskura dituen baliabideak eta erreferenteak ezagutzera emateko, besteak beste, tratamenduen zerbitzua.
- **Gipuzkoako baliabideak** (AGIPAD, Norbera, Gizakia Helburu...) Elgoibarko herritarrei hurbiltzea, garraiorako laguntza gehiago eskainiz.
- **Pediatra-Hezkuntza sarea osatzea.**

5.2 HERRITARREN PARTE-HARTZEA UDALAREN WEBGUNEAREN BIDEZ


68 pertsonak parte hartu dute inkestan, 50 emakumek (% 73,5), 18 gizonek (% 26,5) eta inork ez du "bestelakoak" erantzun. Gehienak 36-60 urtekoak dira.

Grafikoa: Partaidetza sexuaren arabera



Iturria: Elgoibarko udala

Grafikoa: Partaidetza adinaren arabera



Iturria: Elgoibarko udala

Hauek dira landutako galderak:

- Zein dira zure ustez Elgoibarren adikzioekin lotutako dauden hiru arazo nagusiak? Azken urteotan areagotu, gutxitu edo aldatu egin dira?
- Zure ustez, nola egin dakieke aurre arazo horiei?
- Ezagutzen al duzu Udalak adikzioen prebentzioan egiten duen lana?
- Hurrengo Adikzioen Prebentziorako Tokiko Planean, zure ustez, zer jarduera, edo ekimen bultzatu eta/edo sustatu beharko lirateke?

Jarraian, galdera bakoitzaren erantzunak eta horietatik ateratzen diren ondorioak kualitatiboki eta kuantitatiboki jasotzen dituzten taulak erakusten dira.

5.2.1 ARAZOEN IDENTIFIKAZIOA

1. ARAZOEN IDENTIFIKAZIOA	ZENBAT	%
Substantziarik gabeko adikzioak areagotzea: Internet barruko eta kanpoko apustuak, mugikorraren eta sare sozialen erabilera, txanpon-makinetako apustuak eta pornografiaren erabilera	30	% 44,1
Alkoholaren eta kalamuaren kontsumoaren normalizazioa; alkohola da gizartearen gehien onartzen den droga, eta kalamua gazteen artean	30	% 44,1

2. ARAZOEN IDENTIFIKAZIOA	ZENBAT	%
Oro har, droga guztien kontsumoaren hazkundera, ordena honetan: alkohola, kalamua, tabakoa, kokaina eta speeda-a	24	% 35,3
Alkoholaren kontsumoak eta jokoak gora egin dute	7	%10,3
Kontsumitzen hasteko adina jaitsi da	7	%10,3
Alkoholaren kontsumoa handitu da	4	% 5,9
Ez daki- Ez du erantzuten	3	% 4,4
Adikzioen inguruko kezka: alkoholismoa eta ludopatia	2	% 2,9
Joko-aretoak substantzien eta substantziarik gabeko kontsumoaren eskuragarritasuna errazten du	2	% 2,9

Ekarpen puntualak:

- Apustu-lokalak irekitzeko lizentziak ematen dira eta publizitatea baimentzen da.
- Herritarren ezagutzarik eta inplikaziorik eza.
- Orientazio instituzionalik ez izatea.
- Kontsumoaren aurrean zigorgabetasun-sentsazio handiagoa izatea.
- Psikofarmakoen gehiegizko kontsumoa emakumeen artean.
- Kontsumitzeko modua aldatu egin da, arrisku suagoa da
- Utzikeria, ikusi eta ezer ez egitea arazoa saihestuz
- Mendekotasunek zerikusi gutxi dute substantziarekin, pertsonaren ezaugarri pertsonalekin eta ingurunearekin baizik.

Alkoholaren kontsumoa, joko patologikoa eta teknologien gehiegizko erabilera dira Elgoibarko biztanleek hautematen dituzten arazo nagusiak. Horien ondoren, kezkatzeko faktoreak ere badira: normalizazioa, alkoholaren kontsumoaren onarpen orokorra eta kalamuaren kontsumoa, batez ere gazteen artean.

Mota guztietako drogen (legezkoak eta legez kanpokoak) **kontsumoak gora egin** duela uste dute, batez ere adingabeen artean; nahiz eta alkohola izan gehien kontsumitzen den substantzia. **Kontsumoaren hasiera adinak behera** egin duela gaineratu dute.

Herritarren kezka nabaria da substantziarik gabeko adikzioez ari garenean. Adierazi dute apustu-etxeek eta joko-aretoek, bai eta plataforma digitalek ere, edozein motatako kontsumorako irigarritasuna errazten dutela, bai substantziadunak zein substantziarik gabekoak ere.

5.2.2 AURRERA ERAMAN BEHARREKO NEURRIEN PROPOSAMENAK

Funtsean, lau neurri-multzo proposatzen dira:

- ✓ **PREBENTZIOA IKASTETXEETAN ETA FAMILIEN PRESTAKUNTZA.** Diagnostikoan oinarritutako eta herriko errealitatearen beharretara egokitutako prestakuntza-saioak, adikzioa duten edo pairatu izan duten pertsonen testigantzekin eta gaitasun sozio-emozionalak babes-faktore gisa lantzen dituztenak. Prebentzio-lana lehenago hastea eta herritarrei informazioa emateko kalitatezko prozedurak erabiltzea dira beste proposamen batzuk.
- ✓ **NEURRI POLITIKOAK, JUDIZIALAK ETA POLIZIALAK.** Apustu-etxeen gaineko kontrola handitzea eta irekitzeko lizentzia gehiago ukatzea dira bloke honetan aurkeztutako neurri nagusiak. Aurrekoen garrantzi ia berarekin, udaltzainen inplikazioa areagotu behar dela eta trafikatzeko dutenekin zein indarrean dagoen araudia betetzen ez dutenekin haien esku-hartzeak zorrotzagoak izan behar direla aipatu dute. Azkenik, droga-mendetasunen arloko arau-hausteren bat egiten duten nerabeentzat neurri zuzentzaileak areagotzea iradokitzen dute, eta Udalaren ekimenek koherenteagoak izan beharko luketela.
- ✓ **IKUSPEGI HOLISTIKO BATETIK LAN EGITEA.** Herri-mailan, adin tarte guztiei zuzendutako informazio, sentsibilizazio, kontzientziazio eta orientazio kanpainak areagotzea; ostalaritza-sektoreko langileak kontzientziatzeko beharrari aipamen berezia egiten diote.
Atal honen azken proposamena kaleko hezitzaileen lana indartzea da eta aisialdirako alternatibak sortzea, eta gazteek horiek ezartzen parte har dezatela.

- ✓ **OSASUNEAN ETA SAREAN HEZTEA.** Hezkuntza da gakoa, sareko lanean oinarritutako hezkuntza, gizarte osoaren inplikazioarekin: familia, eskola, aisia eta denbora libre. Herriko sektore guztiekin batera eta era paraleloan lan egitea proposatzen da. Familiatik hasita eta gizarte osoarekin jarraituz, osasunerako hezte eta ohitura osasungarriak islatzen dituzten ereduak erakustea izango litzateke proposamenik egokiena.


Jarraian, lau alderdiak erakutsiko dira taula eta grafiko hauetan:

Goranzko interesa duten gaiak identifikatu eta multzotan banandu dira. Era berean, kategoria horiek adierazitako gaien arabera antolatu dira dimentsio desberdinetan.

Taula: Proposamena (1); Prebentzio lana ikastetxeetan eta familientzako formakuntza

PREBENTZIO LANA IKASTETXEETAN ETA FAMILIENTZAKO FORMAKUNTZA	FAMILIENTZAKO ETA GAZTEENTZAKO FORMAKUNTZA	Ikastetxeetan egiten diren prestakuntzak eta familiei zuzendutako saioak indartzea
	BIZIPENAK	Adikzioa duten edo izan duten personen testigantzak entzuteko aukera ematea gazteei.
	EKINTZAK AURRERATZEA	Adin txikiagokoekin formakuntzak hastea
	INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA	Kalitatezko prozedurak erabiltzea herriarrei informazioa emateko
	HEZKUNTZA EMOZIONALA	Gaitasun sozio-emozionalak babes-faktore gisa lantzea.
	DIAGNOSIA	Diagnostiko bat egitea eta errealitatea ezagutzea, arazoaren jatorria ezagutzeko eta, horrela, prestakuntzak benetako beharretara egokitu ahal izateko.


Grafikoa: Proposamenaren kategoriak (1)



Taula: Proposamena (2); Neurri politikoak, judizialak eta polizialak

NEURRI POLITIKOAK, JUDIZIALAK ETA POLIZIALAK	LIZENTZIAK ESKURATZEKO ETA KENTZEKO KONTROLA	Apustu-etxeen kontrola handitzea Udal-lizentziak kentzea; lokalak ixtea Pornografiaren kontrola
	POLIZIAREN KONTROLA ETA INPLIKAZIOA	Udaltzaingoaren kontrol eta inplikazio handiagoa eta esku-hartze zorrotzagoak trafikatzeko dutenekin eta indarrean dagoen araudia betetzen ez dutenekin: tabernetan erretzen dutenekin edo espazio publikoan kontsumitzen dutenekin adibidez.
	LEGEDIAN ALDAKETAK	Neurri zuzentzaile gehiago nerabe arau-hausleentzat Adikzioei buruzko legeria aldatzea
	UDAL-POLITIKEN KOHERENTZIA	Ekintza koherenteak Udaletik; kontraesana da adikzioen arloan neurriak hartzea, eta, aldi berean, kontsumoa erraztea herriko jaien bidez, adibidez "Txiki" eguna.


Grafikoa: Proposamenaren kategoriak (2)



Taula: Proposamena (3); Ikuspegi holistiko batetik lan egitea

IKUSPEGI HOLISTIKO BATETIK LAN EGITEA	SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAK	Herritar guztiei zuzendutako herri mailako informazio, sentsibilizazio, kontzientziazio eta orientazio kanpainak areagotzea. Ostalariak kontzientziazioa adingabeei alkoholaren kontsumoa errazteak dakartzan ondorioez. Alkohola gizartean normalizatua dagoen jardura dela herritarren artean zabaltzeko kanpainak
	KALEKO HEZITZAILEEN ETA BESTE ERAGILE BATZUEN LANA INDARTZEA	Herriko gazte eta nerabe talde bat prebentzio-eragile gisa jartzea Gizarte-hezitzaileen lana indartzea
	AISIALDIKO ESKAINTZA UGARIA ETA ANITZA	Gazteentzako aisialdiko alternatibak eta laguntza baliabideak areagotzea, eta herriko sektoreen inplikazioa hauek garatzeko.

Grafikoa: Proposamenaren kategoriak (3)



Taula: Proposamena (4); Sare lana

SARE LANA	OSASUNEAN ETA SAREAN HEZTEA	- Sare lanean oinarritutako hezkuntza, gizarte osoaren inplikazioarekin: familia, eskola, aisialdia eta denbora libre, herritarrak, etab. - Familiatik hasita gizarte osoa osasunean hezteko eta ohitura osasungarriak islatzen dituzten ereduak erakustea
------------------	------------------------------------	---


Grafikoa: Proposamenaren kategoriak (4)



5.2.2 PREBENTZIO-PROGRAMEN EZAGUTZA-MAILA

Parte hartu dutenen % 54,4k (37 pertsona) adikzioen inguruan Udalak egiten duen lana ezagutzen dute. Aitzitik, biztanleriaren % 45,6k(31 pertsona) ez dute ezagutzen.


Grafikoa: Programen ezagutza



Programa desberdinen puntuazioak hurrengoko grafikoetan laburbiltzen dira:

Hezkuntza-arloko programak: adikzioen prebentzioa Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan.

Grafikoa: Adikzioen prebentzioa Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan programen balorazioa




Familientzako programak: Familientzako ikastaroak

Grafikoa: Familientzako ikastaroen balorazioa




Aisialdiko eta denbora libreko programak:

Grafikoa: Testing programaren balorazioa





Grafikoa: Alkoholemia prebentiboen programaren balorazioa

Grafikoa: Botiltzarra programaren balorazioa



Grafikoa: Aisialdi osasuntsuaren programaren balorazioa



*Elgoibarko udalerrian egindakoak, bai Udalak zuzenean garatutakoak, edota Gazteriarekin, kirolarekin, kulturarekin eta euskararekin lotutako elkarteek garatutakoa.

Programei buruzko balorazio kualitatiboari dagokionez, pertsona gehienak bat datoz **egiten ari den lana positiboa dela esatean**, eta, beraz, prebentzio-lanak modu berean jarrai dezakeela uste dute. Hala ere, arlo horretan lan handia egiten den arren, hobetu daitezkeen alderdiak daudela onartzen dute. Adibidez, aipatu dute gazteekin eta familiekin garatzen den **hezkuntza lana indartu beharko litzatekeela**; eta programek malgutasun nahikoa izan behar dutela gizarte-aldaketetara egokitzeko (kontsumo-ohiturak eta bizimoduak), eta, beharrezkoa dela adikzioen arazoa bistaratzea, herri mailan egiten diren inkesta eta ikerketetatik lortzen diren datuak argi eta garbi azalduz.

Azkenik, adierazi dute garrantzitsua dela egiten diren **prebentzio programen komunikazio eta publizitate handiagoa egotea**, herritarren parte-hartze eza arlo horretan egiten denari buruzko informazio faltari edo ezjakintasunari egozten baitiote.

Aitzitik, **bost pertsonak** uste dute programek ez dutela emaitzarik ematen, programak gutxi direla deritzote, bata bestetik oso aldenduak, eta **erakargarriagoak eta berritzaileagoak izan beharko liratekeela herritarrentzat**. Koherentziarik eza kritikatu dute; izan ere, aisialdiaren esparruan adikzioak prebenitzeko programak abian jartzen dira (herriko jaietan egiten diren prebentzio-jarduerak), eta, aldi berean, Udalak kontsumoa justifikatzen du jai-giroaz gozatzeko.

5.2.3. PLANEAN INDARTU BEHARREKO JARDUERAK ETA EKIMENAK

Azkenik, hurrengo planean indartu edo sustatu beharko liratekeen jarduera eta ekimenen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- ✓ Adikzioen arloko prebentzioa indartzea, hezkuntza-mailan eta familietan, etengabeko prestakuntza gehiago eskainiz eta irakasleentzako saioak eta benetako testigantzak gehituz.
- ✓ Gazteentzako aisialdiko eta kiroleko alternatibak indartzea, euren aisialdia kudeatzen ditzaten utziz eta euren aisialdiaren partaide bihurtuz.
- ✓ Polizia-ekintzak indartzea, kontrola areagotzea.
- ✓ Informazio, sentsibilizazio eta orientazio kanpainak indartzea.
- ✓ Politika eta kultura arloko ordezkarien irudi publikoa indartzea, programek koherentzia berreskura dezaten.
- ✓ Sare lana indartzea, ostalaritza-sektoreari prestakuntza eskainiz, prebentzio-lanean duten inplikazioa sustatzeko.

Beste ekarpen puntualago batzuk ere izan dira: genero-ikuspegia programa guztietan gehitzea, dauden laguntzak iragartzea eta indartzea, hirigune egokiak indartzea *tabernako barratik kanpo* egoteko eta partekatu ahal izateko, adikzioak alkoholarekin eta beste droga batzuekin soilik ez lotzea (jokabide-adikzioak barne hartzea), detekzio goiztiarrerako ekintza gehiago egitea eta arrisku-faktore pertsonalak lehenago identifikatzea

Taula: Indartu beharreko esku-hartzak, jarduerak eta ekimenak

INDARTU		
FORMAKUNTZAK	Hezkuntza arloan gazteei, familiei, irakasleei zuzendutako ekintzak indartzea eta adikzioen bat duten edo mendekotasuna pairatu duten pertsonen testigantzak gehituz.	%36,76
AISIALDIKO ALTERNATIBAK	Aisialdi eta kirol jarduera gehitzea gazteentzat, euren aisia kudeatzen utziz eta euren aisialdiaren partaide bihurtuz.	%23,53
POLIZIA EKINTZAK	Bide publikoan egiten den kontsumoa zigortzea. Substantziarik gabeko adikzioekin lotutako guztia erregularizatzea (ordutegiak). Gazteen lokalak eta tabernak kontrolatzea. Herriko supermerkatuen edo hipermerkatuetan disuasio-patruilak jartzea.	%20,59
KANPAINAK	Informazio eta sentsibilizazio kanpaina gehiago, batez ere herritarrak, politikariak eta udaltzainak kontzientziazteko.	%13,24
UDALAREN IRUDI PUBLIKOA	Politikaren eta kulturaren arloko ordezkarien irudi publikoa gehiago zaintzea eta irizpideak ezartzea. Esaten eta egiten denaren artean koherenteak izatea.	%10,29
SARE LANA	Sare lana eta biztanleriaren hainbat sektoreekin egiten den lana indartzea. Ostalariak prebentzio-lanean inplikatzeko prestatzea. Batez ere, adingabeen alkohol-kontsumoaren eta joko patologikoaren ondorioei buruz sentsibilizatzea.	% 4,41

6. ONDORIOAK

1. MENDEKOTASUNA SORTZEN DUTEN KONTSUMOAK ETA PORTAERAK

1. Gure gazteen alkohola kontsumitzen hasteko adina 13 urte eta 5 hilabetekoa da, tabakoa baino urtebete lehenago eta kalamua baino hamabost hilabete lehenago; beraz, garrantzitsua da substantzia horiek kontsumitzen hasteko adina atzeratzea.
2. 10 gaztetik ia 2k gehiegi kontsumitzen dute alkohola (150 gr-tik gora alkohol puru edo bi botila ardoren alkohola, 15 garagardo edo graduazio altuko 7.5 konbinatu.
3. Gehien kontsumitzen diren legez kanpoko drogak kalamua (10 gaztetik 1), kokaina (100etik 2) eta estasia (200etik 1) dira.
4. Internetez kanpoko apustuak (loteriak, kinielak, txanpon-kutxak, kirol-apustuak) 10 gaztetik batek egiten ditu, eta bikoitza edo hirukoitza da gizonen artean (% 10 13-14 urterekin eta % 30-40 17 urte edo gehiagorekin) emakumeekin alderatuta (% 4,5 batez beste). Bitarrak ez diren pertsonen % 15ek asteen 5-7 egunetan egiten dute apustu
5. CIUS eskalak epe labur/ertainean Internetetikiko mendekotasuna izateko arriskua neurtzen du, eta adierazten du gizonen % 10.6, emakumeen % 23 eta bitarrak ez diren pertsonen % 31.6 Internetetikiko mendekotasuna izateko arriskuan daudela.
6. Adin nagusiko 10 euskal herritarretik 7k alkohola kontsumitu du azken hilabeteen, % 22k egunero erretzen du tabakoa (emakumeen % 18k eta gizonezkoen % 25ek) eta % 5ek kalamua kontsumitu du azken hilabeteen, egunero % 2k (15-29 urteko gizonen % 7k eta adin bereko emakumeen % 1ek).

2. ERAGILE GARRANTZITSUAK

1. Agente garrantzitsuek identifikatutako adikzio-arazo nagusiak alkoholaren eta kalamuaren kontsumoa dira, eta substantziarik gabeko adikzioen artean, gehien aipatzen direnak sare sozialak dira, telefono mugikorren bidez gehien erabiltzen direnak, eta jokoa; batez ere apustuak.

2. Adinari eta sexuari dagokienez, alde nabarmenak daude; adinak gora egin ahala, kontsumo berriak gehitzen zaizkio, eta haietarako motibazioak eta espazioak eta denbora aldatzen dira. Zenbat eta zaharragoa izan, alkoholaren kontsumoa asteburuan kontzentratzen da, funtzio sozializatzailerarekin. Gazteen artean, kalamuaren kontsumoa gazteen lokaletan egiten da aste osoan, eta alkoholaren kontsumoa asteburuetan kontzentratzen da, gazteen lokaletan zein bide publikoan.
3. Emakumeek sare sozialak eta legezko drogak gehiago kontsumitzen dituzte antzematen da, eta gizonezkoen kasuan apustuak eta legezko drogak ere gehiago kontsumitzen dituztela antzematen da.
4. Adikzioak garatzeko arrisku-faktore nagusiak ezaugarri pertsonalekin lotutakoak dira, hala nola bakardadearekin eta zailtasun emozionalekin lotutakoak; irisgarritasun errazarekin eta kontsumoaren normalizazioarekin lotutakoak; familia-gatazkekin eta harreman arrazoiekin zerikusia dutenak; eta, azkenik, eskaintzarik ezarekin edo aisialdiko eta denbora libreko alternatiba urriekin eta errendimendu akademiko txikiarekin zerikusia dutenak.
5. Eragile garrantzitsuen ustez, lehentasunez landu behar diren alderdiak eta esku-hartzeko proposamenak hezkuntza-eremuarekin (ikastetxean, familian eta udal-mailan hezkuntza-lan sakona egitea paraleloki) eta eremu komunitarioarekin (adibidez, indarrean dagoen araudia eta udal-ordenantzak betearaztea) lotutako neurriak dira.

3. PARTE HARTZEN DUTEN HERRITARRAK

1. Alkoholaren kontsumoa, joko patologikoa eta teknologien gehiegizko erabilera dira herritarrek hautematen dituzten arazo nagusiak, eta horien ondoren, normalizazioa, alkoholaren kontsumoaren onarpen masiboa eta kalamuaren kontsumoa, batez ere gazteen artean.
2. Mota guztietako drogen (legezkoak eta legez kanpokoak) kontsumoak gora egin duela uste dute, batez ere adingabeen artean, nahiz eta alkohola den gehien kontsumitzen den substantzia. Ondorioztatu dutenez, substantzien kontsumoaren hasierak behera egin du. Jokabide-adikzioei dagokienez, adierazi dute apustu-etxeek eta joko-aretoek, bai eta plataforma digitalek ere, edozein motatako kontsumorako irisgarritasuna errazten dutela, substantziekin edo gabe.
3. Lau dira proposatzen dituzten neurrien blokeak: prebentzioa gehiago sakontzea ikastetxeetan eta familientzako prestakuntza areagotzea; neurri politiko, judizial eta polizial gehiago hartzea, adibidez joko-aretoak gehiago

kontrolatuz, poliziaren inplikazio handiagoa edo indarrean dagoen araudia betearaztea; tokiko informazio, sentsibilizazio, kontzientziazio eta orientazio kanpainak areagotzea; kaleko hezitzaileen lana indartzea eta aisialdirako alternatibak sortzea; eta azkenik, herriko sektore guztiekin batera eta paraleloki lan egitea.